



BIZIAN GORA


# Zer deritxazu?



Zer deritxazu?

A. Martzel Andrinua

®



4



BIZIAN GORA

**Zer deritxazu?**

A. Martzel Andrinua

---

# Zer deritxazu?

---

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

Azala: *Hilario Urkia*

Irudiak: *Javier Erostarbe*

© Ibaizabal argitaletxea, 1997

ISBN: 84-8325-088-8

Legezko gordailua: BI-2307-97

Inprimategia: R. G. M.

**EUTSI!**

*Sarri dinogu maisukeriaz  
"au da egi biribila",  
egia esan, egia bat da,  
eritziak dira mila.  
Zintzoa beti ara ta ona  
dabil egiaren bila:  
esan ta entzun, gogoz ausnartu,  
sarritan otoitz isila.  
Eta Jainkoak bedeinkatzen dau  
egizale dan umila.  
Ori dok ori, mutila!  
Aspertu barik abila!  
Egunen baten aseko jatzu  
jakin-naiaren pil-pila,  
**"Zer deritxazu?"** egi-bidean  
lagungarri bat dedila.*

A. Martzel

## ZER DERITXAZU?

*Gaur egun zer dan ona eta zer txarra, zer dan egia eta zer guzurra, zer dan zuzena eta zer okerra... nork igerri? Nor bakoitzak une bakoitzean deritxona? Inguruko geiengoak deritxona? Guk, kristau garenez, zertan oinarritu bear dogu, egia eta on-bidea nondik nora doan jakiteko? Bide bat bakarra dago leen, orain eta beti: **Nazareteko Jesus, bere Ebanjelioko bidea**. Ebanjelioa ez da aldatu, alperrik aleginak alegin. Kulturazko eta azalezko zertxo batzuk aldakorrak dira eta norbere lurraldera eta bizitzaldira moldatu bearko doguz; baina mamina, sinistu eta onartu bear dogu. **“Zenbat buru ainbat aburu”** esan oi da; baina kristau jente zintzoak egia, bidea eta bizia norengandik jaso badauka: Jesus Gure Jaunagandik. **“Neu naz Bidea, Egia eta Bizia”** (Jn 14, 6).*

*Jesus Gure Jaunak, munduan bizi zala, aleginak eta bat egin ebazan, guzur-naasteak narru gorrian ipinteko, inori eder egiteko asmo barik, eta nork zer*

esangoaren bildur barik: **“Maisu, badakigu zuzen berba egiten eta irakasten dozula eta nor nor dan begiratu barik, Jaungoikoaren bidea zabal-zabal erakusten dozula”** (Lk 20, 21). Benetan Maisu argia eta sakona zan; sarritan aurrekoei itaun biziak egiten eutsezan, euren eritziak agirian ipintearren: **“Gizonaren Semea nor dala dino jenteak? [...] Eta zeuok nor nazala dinozue?”** (Mt 16, 13-15). **“Zuen ustez, irurotatik zeinek jokatu eban lagun urko lez?”** (Lk 10, 36). **“Alde nigandik, Satan! Oztopo zara Niretzat, zure burutapenak ez dira Jaungoikoarenak, gizonenak baino”** (Mt 16, 23). **“Zer deritxazue?”** (Mt 18, 12). **“Zer deritxazu, Simon?”** (Mt 17, 25). **“Zer dinozue Mesiasi buruz? Noren ondorengoa da zuen ustez?”** (Mt 22, 42). Eta orduko Jesusen itaunak **“Zer deritxazu?”** or jarraitzen dabe, bakoitzaren erantzunaren zain. Esku batean Ebanjelioa eta bestean eguneroko bizitza dogula, fedearen argitan zer zelan egingo bilarka ibiltea: ori da kristau jatorra izatea.

Eskuetara jatortzun liburutxo onetako gai bakoitzak atal bi ditu:

Leenengoa, geu eta giza-bizikizuna aztertu eta arakatu, esaera zaar baten inguruan. Esan ere, esaten da: **“Esaera zaarrak guzurrik ez”**. Geure gizarteko bizikizuna laburrean aurrez aurre jarten deusku eta. Eta puntu bakoitza itaun baten kaketik eskegita izten deusku aurrean, **“Eta zuk zer deritxazu orri?”**, geu taldean erantzunaren bila joan gaitezana.

Bigarrenean, **Ebanjelio-ataltxo** bat dator, nondik artuta dagoan adierazoz, bertatik testuinguru osoa irakurri daizun. Ondoren, ikuspuntu eta itaun batzuk datoz, esaera zaarraren eta Jesusen erakutsien artean **ze alde** dagoan ikusi eta zertan aldatu bearra daukagun aztertu eta zuzentzeko. Azken baten, orretakoxe da kristau batzarra: Jesusen irakatsien argitan gure eritzi eta jokabideak zuzendu eta atara jokatzeke.

Ausnarketa au **taldetxoan** egiteak onik asko dakar: bakoitzak etxean bere jardunaldia eginda gero, taldean eritziak alkarbanatu eta alkar aberastu eta maitasunez zuzentzeko. Ez aztu Jaunak Berak agindutakoa: **“Zuetariko bi edo iru nire izenean alkartzen zareen tokian, antxe izango naz erdian.”** Orregaitik, batzarra bakegiroan egin bear da; eta eritzi ezbardinak errespetuz onartu eta, al dala, batzarreko lagun danak parte artu dagiela. Ikusten danez, au ez da nork geiago dakian agertzeko, edo buruz daviguzanak erakusteko, ezta auzokoen joan-etorrietan sartu-urtenka ibilteko. Jaunaren Berbeak geuri zer dinoskun jasoteko eta geuk zelan erantzungo deusagun ikusteko baino. Eta beti, otoitz-giroan amaitu: eskari batzuk eginaz, eskerrak emonaz, zerbait abes-tuaz... Ebanjelioko maai ederra zabalik dago, urreratu gaitzean pozik, eta artuala guztiak on egin dagitzuela!

A. Martzel

1

ADISKIDEAK ALBOAN,  
BAINA ORTZAK AOAN



- *Karidadea norberagandik asten ei da.* Eta amaitu? Amaitu ere norberagan, ezta? Urkoarentzat ondakin apurrak. Eta orduan ere ordainaren truk. Adiskideak ordu onean eta txarrean ezagutzen dira. Eritzi bardineko, naiz ezbardineko izan. “Astoak astoari azka” esan oi da. Dana txalo eta goralpen, dana ona eta zuzena; jakina, adiskide danean. Zelango asarreak adiskideen artean! Zergaitik? Adiskidetasuna ere zaindu bearreko pitxia da? Zer deritxazu?
- *Maitasunak amets asko eta lo gitxi.* Adiskidetasunaren ezaugarria, barrutik sortzen dan eginbearra da: nondik on egingo, zelan poztuko. Adiskidetasunik ez dago, ez badago maitasunik; eta ez dago maitasunik, alkarren onerako sufritzen ez bada. Norbere burua maitatu, eta besteari ere itzi bera dan modukoa izaten, bere burua maitatzen. Norbere burua bear dan moduan maitatzen danean bakarririk, maitatu leike urkoa ere bear dan lez. Uleritzen da? Eta zer deritxazu?

**“Irurotatik nor deritxazu izan  
zala lagun urkoa?**

**— Erruki izan jakona.**


**— Zoaz eta egizu zeuk ere bardin”**

(Lk 10, 36-37).

- \* Jesusek gure eritzi eta pentsakera asko desegin egiten deuskuz, okerretara gabiltzala erakutsiz: neu ondo banaz, bestek hor konpon! Gogoan artu: bidean beera etozanak, kultoan izanda etozen; eleizatik bizitzara. Legea bete eben, baina Jainkoagaz bat egin bai? Izan ete leiteke Jainkoaren adiskide, ilten dagoanari jaramonik egin barik? Zer deritxazu?
- \* Kultozaleak legez jokatu eben, pratikanteak ziran; gainera, eurak ez eben zauritu; geiago oraindik, kanpotarra zan, haren odolez ezin eitekezan zikindu... Ainbat oitura eta lege eukezan, egin ebena egiteko. Alan da ere, biak ondo ekien zer egin bear eben, benetako lagun urko izateko. Erruki izan eta lagundu eutsonaren antzeko: bere astora jaso, ostatura eroan, bere kontura kastu guztiak artu... Jesusek guri gaur aurrean ipinten deuskun ispiluan, zer ikusten dogu? Zertan daukagu aldatu bearra, bere antzeko izateko? Zer deritxazu?



## ARTU EDO ITXI, KUNPLIMENTU GITXI

A black and white illustration of a scroll with a quill pen and an inkwell. The scroll is unrolled, showing text. The quill pen is in an inkwell, and there is a small circular object next to it.

*Baietzaren Jaungoikoa,  
atzerarik gabekoa!  
Ze maitasuna deustazun, Aita,  
biotz bete-betekoa!  
Egizu beti izan nadila  
Zurekin esanekoa.*

- Ez ibili gaur artu eta biar itxi, dagoan eguraldi, edo gogaldiaren arabera. Nor ez da noiz edo bein santu edo antzeko izan? Eguneroko ori ondo eroatea da banaka baten kontua. Berbaz guztiok agertzen gara on biribilak, baina egitera-koan dira kontuak. Errez jausten gara *epelkerian*; orduan errezegei parkatzen deusagu geure buruari. Ez ete gara errezegei makaltzen eta makurtzen? Ez ete gara aspaldion makaldu kristau bizitzan? Zer deritxazu?
- Jokabide errezkoi onek baditu bere ondorenak: inor ez da fiatzen olako bategaz, ez da kontatzen beragaz arazo astun baterako. Eta txarrena; norbere burua engainatzen dala. Badaezpadan egiten diran lanak, *badaezpadakoak* izan oi dira. *Badaezpadako pertsonea*, nori deitzen jako? Zer deritxazu?


**“Ez uste izan hurrera  
bakea ekartera etorri nazanik;  
ez naz bakea ekartera etorri,  
ezpatea baino”**

(Mt 10, 34).

\* **"Bakea"**, bake faltsoa esan gura dau Jaunak: alperrarentzat eta epelarentzat ez dakarrela bakerik. *Nekerik gitxien eta probetxurik geien...* Joko ori txartzat botaten dau Jesusek. Bere senean eta bidean dabilenarentzat bai, badakar bakea, eta inungo bakerik sakon eta gozoena, ekarri ere. Benetako bakerik ez badago, ez ete da bake faltso asko dagoalako, edo eta bear ez dan gauzetan ipinten dalako? Zer deritxazu?

\* **"Ezpatea dakart."** Baina ondo ulertu, gero! Ez inor jota garbitzeko, norbere burua, norbere bizitzako okerrak zuzentzeko baino. *Adar iger ustelak inausteko ezpatea; bide barriak urratzeko ezpatea.* Askatasun betera daroan ezpatea. Inoren kontra erabilten doguzan ezpatak, geure burua garbitu eta landuteko erabiliko bagenduz, a zelako bakea! Jesusen guraria agirian dago: ez gaitu nai erdipurdizkoak, benetakoak baino. Bear dan lekuan aurpegia emoteko ausartak, bes-teen onerako norbere buruari uko egiteko kapaz diranak... Ulertu al dogu zetariko *ezpatea* esan gura deuskun Jesusek? Zer deritxazu?

## ARTZEKO PRONTO, EMOTeko TONTO




- Aintxina ere olan izan ei zan: “*Esaera zaarrak guzurrik ez*”. Beti betikoa: inoren etxe-ondoan isilean bildotsa itzi ez baina, inoren basotik ardi ederra ostu... Beti artzekotan, gauza ona bada beintzat. Emoterakoan, al danik gitxien eta geienetan geiago artzekotan. Artzeko mila *eskubide*, emoteko, barriz, mila *ankabide*. Artuemona, ez ete da orixe guztion zoriona? Zer deritxazu?
- *Pronto*. Ume txikiak ere prest artzeko, eskuak beingoan luzatuko dabez. Bat eskeindu orduko, amar esku aurrean, eske.

*Tonto*. Nagi emoteko, egiteko. Entzungor sarri; mila atxaki libre geratzeko. Artzeko bada, gaur berton izan daiteke; emoteko, barriz, obe biar-edo... Doango zereginetan aurrera ala atzera goaz? Zer deritxazu?

**“Badaukanari emon egingo jako,  
eta ez daukanari,  
bere ustez daukana ere,  
kendu egingo jako”**  
(Ik 19, 26).

- \* *Au dok filosofia!* Guk bizi dogunaren ondoan jarrita, aldrebeskeria galanta! *Euki*: norberak ondasuna euki eta bear dan lez erabiltea, urkoarenganako eskuzabaltasunez. Ondasunak eurak norbera ara eta ona erabili bearrean, norberak ondasunak erabili ganoraz eta on eginaz. Ondasunak irabazitan ipintea, inguruan laguntzen erabiltea. Olakoari ondasunak geitu egiten jakozala, gainerratu: ondasun materialak eta espiritualak. Zer? Emoten dauanak geiago artzen ete dau? Tratu ederra orixe! Zer deritxazu?
- \* **“Ez daukanari, bere ustez daukana ere, kendu egingo jako.”** Traketsari, norberekoari, gorde-gordeka dabilenari, badaukala uste dauana ere kendu; obeto esanda, gitxitu egingo jako: gorde bearren bearrez, gero eta aalmen gitxiago, gizontasun kaxkarragoa. Gero eta geiago bear dauan lez, uste dau gero eta gitxiago daukala. Izan ere, diruak neurtzen dau gizona. *Apostua*: ez nork diru geiogo, diruz nork on geiogo egin baino. Zer ba? Dirua ere *gari-aziaren* antzeko ete da, ba? Geituko bada, erein eta zabaldu bear dana? Zer deritxazu?

## ASIAK EGINA DIRUDI, EGINAK URRE GORRI



- Egitadak dira gizon bakoitzaren frutu. Gauzak egoki asmau eta esatea benetan goralgarria da, baina egiterakoan neur-tzen da benetako gizona. Lan eta arlo barri bat asten dogunean, bai pozik! Eskuetako lanetan agertzen dogu geure barruko gogo eta aalmena. Beti pentse-tan eta asmetan egon bearrean, oratu eta ekin arloari. *Asiak egina dirudi. Zer deritxazu?*
- Bide baten ibiltan asi aurretik, kontuak ondo atera bear dira. Bardin lanbide barri bat asterakoan. Baina, beti edo luzaro begira egoterik merezidu dau? *“On bila, on bila, bonbila”*, esan oi da. Egin, gure bizitzako egitekoa osotu, bu-rutu, ez da egiten azkenera arte. Une bakoitzean biderik egokiena artu eta aurrera. Joan ala ikusten da obeto, eta zuzentzen da, zer zelan egin bear dan. Zer deritxazu?


**“Lur onak lez azia artzen  
dauana, auxe da: itza entzun eta  
ulertzen dauana; onek, bai,  
badakar frutua, eta bateko eun,  
edo irurogei, edo ogeita amar  
emoten dau”**

(Mt 13, 23).

\* Aurreko beste irutariko azia azi utsean gelditu da. "Lur onean..." jausitakoak bai emon frutu ederra! Ona eta ugari. Maitasunaren beroz ondo eldutako garau piloak. Geure eguneroko lanez eta bizitzaz emoten goazen frutua da. Aitita amama on batek zer frutu emoten ete dau ainbeste urtetan! Orixe Jaungoikoaren aurrean aintzarik aundiena. Zer deritxazu?

\* **"Bateko eun, edo irurogei, edo ogeita amar."** Danak emon-ala, baina batzuek beste batzuek baino geiago. Zu beste batzuek baino motxago gelditu zareala? Eta zer? Zeure neurrian zintzo jokatu badozu... Zeure gitxian zintzoa izan bazara, zeurea dozu Jaunaren zorion-saria. Au jakitea, zer? Poztutekoa ez al da? Zer deritxazu?

## AUKERAREN MAUKERA, AZKENEAN OKERRA



*Nire bizitzan emon deustazu,  
Jauna, ainbeste aukera,  
nire almen ta doaiak jarri  
nai neukez Zu zerbitzera.  
Batetik ondasuna,  
bestetik osasuna  
ta sinismena gainera.  
Al dan bestean on egiteko  
prest nago gaurtik aurrera.*

- Berez aukera asko eukitea ona da; pertsonari bere aalmenak bizkortu eta erabilteko bide asko eskeintzen jakoz. Aukerak egiterakoan ezagutzen da bakoitzaren barruko egarria eta tamainua. Norbere ondasunak besteekaz alkarbanatzeko, eta doaiak besteen zerbitzura jarteko aukerak ere ortxe dagoz, egon. Baina, ikusten dana ikusita, pertsona noiz da ohea, zintzoagoa: bizitzeko lain daukanean, ala *zer nai eta axe* daukanean? Zer deritxazu?
- Aurrean aska-bete daukanean, inor ez doa lanera, ez pizti ez gizaki. Jan-edanez eta atseginkeriz momortu eta usteldu egiten da. Alde batetik, dana iruntsi bearra sortzen jako; bestetik, neurri normaltan kabidu ezina. Ortik *jarrera oker biok*: biotz gogorra eta arrokeria. Zuk zeuk, zer ikusten dozu? Zer deritxazu?

**“Jainkoaren erregetza, ain zuzen ere, arribitxi bila dabilen tratulariaren antzekoa da: bat oso baliotsua aurkitzen daualarik, joan, gauza guztiak saldu eta axe erosten dau”**

(Mt 13, 45-46).

- \* **“Jainkoaren erregetza.”** Jesusen esanera, auxe adierazoten dau: Jaungoikoaren gogoko dan pertsona, erria, familia. Danen gainetik, Jaunaren Legea biderakusle eta bizi-lege nagusizat artzen dan lekua. Zertan esanik ere ez: *Jainkoari ez jako edozer bardin*. Kontua ez da: Jainkoa geure esanera ipintea, geu bere esanera ibiltea baino. Askok dinoe: *“Orain-txe dakit Jainkoak maite nauana: Eskatu neutsona emon deust eta”*. Ez litzateke obeto egongo: *“Nik leen baino maiteago dot Jainkoa, aukera gozoagoak neure buruari ukatu eta bere lege-bideak errezago aukeratzen ditut eta”*. Zer deritxazu?
- \* **“Arribitxi bila dabilen tratulariaren antzekoa da.”** Edozegaz konformatzen ez dana, bideko orbel abarrakaz naikitzen ez dana. Goragoko ondasunen bila dabil; ez da errez jausten sasi-masietan; ez da edozein tranpazko *“artagarauaz”* engainatzen dan txoria. **“Bat oso baliotsua aurkitzen daualarik.”** Pertsonaaren barrura begira, zertzuk izan leitekez *“arribitxi baliotsu”* diralako orreek? **“Joan, gauza guztiak saldu eta axe erosten dau.”** Zer deritxazu? Onetarako zer dogu bearrezko? Zelan aurkitu pitxi orreek?

6

## AUNDI TXIKIAK BAINO, TXIKI AUNDIAK NAIAGO




- Aundi izatea, guztion ametsa. Umetatik asten gara aundi-plantak artzen, egiten. Zoroetxean ere ez ei dago inor txikirik; danak ei dira *Napoleonetik* gorakoak. Baina zer da aundi eta txiki izatea? Lazkao Txiki bertsolariak esaten eban: "*Gizona samatik gora neurtzen da.*" Edo baita: "*Botila aundi utsa baino naiago txikia baina beteta*". Sarri inor artzen da gora igoteko eskailaratzat. Inor zapaldu bear, norbera gora igoteko; inor zikindu bear, norbera garbitzeko. Inor pobretu bear, norbera aberasteko... Zertan bereiztuko zeunke aunditasuna eta aundikeria? Ze alde dagoala uste dozu bien artean? Zer deritxazu?
- Bada beste gizamodu bat, beste eskailera bat erabilten dauana, gora igoteko; obeto esanda, *gizonago izateko*. Inorenak arrapatu bearrean, beti laguntzeko prest dagozanak; inor zapaldu ez baina zapalduak tente ipinten alegintzen diranak; inoren pozez poztuten diranak; guzurrik euren irabazbiderako ere esango ez leukenak. Nor da gizonago? Nor dago gorago? *Txiki aundiak, ala aundi txikiak?* Zer deritxazu?

**"Zuen artean txikiena dana,  
orixe da aundiena"** (Lk 9, 48).

\* *Txikiena, aundiena...* Munduko neurritz txikiena, Jesusen neurritz aundiena. Au dok aldrebeskeria! Eta nork arrazoia? Azken baten, noren neurriak emoten dau benetako balioa? Eukiz txikiena dana, izatez orixe aundiena. Zarata aundiak ez, egitada isil eta txikiak balio dabe; ez asko jakiteak, asko maitatzeak baino. Azkenean ere, Jesusen eskailera onen azkena da onena: **“Zeruko atea txikia eta estua da, eta txikiak sartzen dira bertatik; kostako jake aberatsei andik sartzea!”** Gauzak zelan diran ondo dakianak badinosku au, alperrik ibili buruarro munduan, makurtu bearko, sartu nai bada zeruan. Zer deritxazu?

\* *“Txiki”* baina *“aundi”* izatea, zerbitzari izatean ipini eban Jesusek: **“Zuen artean leenengo izan nai dauana egin bedi danen zerbitzari.”** **“Ni ez naz etorri besteak Neu zerbidu nagien, Neuk besteak zerbitzera baino, eta danen alde bizia emotera.”** Maaian jarrita dagoana baino aundiagoa dala dino, bertan zerbitzen dabilena. Izan ere, aletin eta gogo geiago bear da zerbitzeko, agintzeko baino. Asko kostata ere, merezidu dau Jesusen bide au artu eta jarraitzea? Zer deritxazu?

## AUZOAK ILETETAN ETA GU OPILETAN



*Ez da gauza zuzena  
auzoa iletetan  
eta norbera nasai  
pazko opiletan.  
Ibili nai dot, Jauna,  
zure bideetan,  
alkarlanean bizi  
neke ta pozetan;  
Zeu ta lagun urkōa  
maitatuz benetan.*



- *Opiletan... iletetan...* Kontu ori txandaka izaten da munduan. Eta opiletan dabilenak, iletetan dagoanari lagundu ezik, orduan bai mundu tristea! Badira auzoa iletetan ikusita, beste barik, eurak *opilarren gozotasuna* sentitzen dabenak ere. Inoren negarraz eskuak garbitzen dabezanak, inoren gatxagaz poztuten diranak. Zer dira *opilak eta biletak* gure bizitzan? Eta zer eragiten deusku geiago: norbere opilak ala inoren iletak? Zergaitik? Zer deritxazu?
- *Auzoa... auzoa...* Gure artean ere askotxo dira *Nikaragua* eta *Txinako* arazoaz oso minduta agertzen diranak, baina norbere auzoko ileta-kanpaiaren deiaren aurrean entzungor egiten dabenak! *Komenentzizko ileta-opilak?* Ondo ordaindutako opilak? *Auzoa... auzoa...* zer da guretzat auzoa? Zer deritxazu?

**“Eta besteak zuei egitea nai dozuena egin zuek ere besteai”**

(Lk 6, 31).

- \* Ez da neurri txarra, baina norberak inori on egiten aurrea artu ezker. Geure oker egiten aurrean besteen atxakia eta errukia nai? Izan zeu ere olakoxea inogaz. Zeure estualdian besteen laguntza nai? Emon zeuk ere zeure laguntza preminan dagozanei. Gaur nork ez daukaz gogoan *eskubideak?* Zenbat zarata eta kalejira eskubide-eske! Ori ondo dago, baina besteen eskubideak ere, bide batez, onartuaz eta errespetatuaz. *Eskubideak eskatu eta eginbearrak gogoratu*, bietatik zein dabil indartsuen gaur gure artean? Zergaitik? Guk zer egin onen aurrean? Zer deritxazu?
- \* Nori ez jakoz gogoko *txaloak?* Baina ez batzuk, txaloak jota goratu; eta, era berean, beste batzuk, txaloak emon eta, beeratu! Gauza ona, dagoan lekuan dagoala, zintzotasunez goratu eta txalotu egizu; okerra bada, bardin salatu eta zuzenduten alegindu. Baina *koloreari* begiratu barik? Zer *galdu* edo *irabazten* dōgun kontuan artu barik. Gaur ze eragin dauka *koloreak* eta *irabaziak?* Zer deritxazu?

## AZURRAK BADAU KOIPEA, BAINA MAMINA OBEA



- Bizitzan badira bat edo beste aukeratu bear izaten diran arloak, bideak; bata txarra eta bestea ona edo ohea dalako. Baina geienetan bata ona da, eta bestea ohea. Onetik oberako aukerak sarri egiten doguz bizitzan: jan-edanetan, jantzikeran, lanpostuetan, etxe edo kotxea erostera-koan. Baina *norbera onetik obero* izateko aukerarik bai gero? Errezegi ez dogu plan-to egiten? *“Nik naiko egin dot leen ere!”* *“Ni baino txarragorik bada baztarretan!”* “Eleizara joan barik ere... otoitzik egin barik ere... ona izan leiteke!” Olako antzekorik entzun dozu? Eta zer deritxazu?
- Azurrak eurak ere onura gozorik izaten dabe. Salda gozoa atonduten da. Baina mamina, mamina da. Norbera ona izan eta inori kalterik ez egin... Olako *“azur”* koipetsuak ere ez dagoz edonon! Baina norbere sailean ona izanaz gainera, etxean eta auzoan on egiten diarduana, ohea ez da? Leen santutasuna, birtuteak, bokazinoa... asko aitatzen ziran; eta gaur? Zer deritxazu? Zergaitik ete da?

**“Marta, Marta, gauza askogaz  
kezkaz eta larri zabiltz; baina  
bat bakarra da bearrezko.  
Alderik onena aukeratu dau  
Mariak eta ez jako kenduko”**

(Lk 10, 41-42).

\* Martak baerabilen zirtizarta naikoa, Jesus alik ondoen zerbitzeko. Eskubete lanez estu eta larri sentitzen zan. Eta Maria, bere aiztea, Jesusen oinetan geldi, entzun eta ausnartzen Jesus Maisuari erion ezta. Beti ere olako aukera on bat ez dala izaten eta... Martarena ona da; baina Mariarena ohea? Alan dino Jesusek. Zergaitik? Zer deritxazu?

\* Untzea emen egon leiteke bearbada: Marta lan eta lan ebilen eta astirik ez Jesusegandik ezer artzeko, dana zan emon-bearra. Eta Jesus, Bera ere, zerbait emotera etorri jakon etxera. Gainera, Martaren ustez, Maria bere aiztea, denporea alperrik galtzen egoan an; oheagorik eta leenagorik baegoan: berari eskulanean laguntzea. Ordu orretan bestelako gauzetan egotea, alperkerian egotea da. Baina Jesusek gauzak *bere lekuan* ipinten deutsoz: "Bai, Marta, zure arloa ona da; baina larregi arduratzen zara. Gorputz-janaria prestatzen bikain diarduzu; baina Neuk ere badot zuretzat beste janari bat eta ez daukozu asti apurtxo bat ere janari ori artzeko." Ezin geinke *erdibana egin*: bai jana eta bai astia? Jesusen erakutsi onek zer dinotsu? Zer deritxazu? Geure bizitzara begira, ze erakutsi damosku Jesusek?

## BADALAKOA EZ DA, EZ DALAKOA BADA

*Zeure aurrean emen naukazu,  
ene Jaungoiko leiala,  
Zuk ezagutzen nozu osorik  
barrua eta azala.*

*Nik neure mailan jokatu nai dot  
nazan moduko nazala,  
zintzoa baina makala.*

*Ez daukat asko zetan arrotu,  
izan nadila apala;  
zure graziak orain ta beti  
zintzorik zaindu naiala!*



- Au da naaste-borrastea! Bai, eta guk askotan ustè dogun baino aundiagoa, gainera. Nor da benetan aundia, santua, aberatsa, zuzena, zintzoa, egizalea? Jakina, zetariko *neurri-kordela* erabilten dan, izango da. Ganaduzaleak erabilten dabena bada, diru-etxeetan darabilena bada, orduan zer? Gaixo, zaar eta beartsuen artean dabiltzanak darabilena bada? Zelan zer arrapatuko edo zelan nori lagunduko arduraz ibili... guztiz ezbardina da, ezta? Orduan, nor da aundi? Eta zergaitik da aundi? Zer deritxazu?
- *Daukagunetik* edo *dakigunetik* neurtuta, agirian dago nor dan aundiena eta gorrena. Bakoitza bere bizimoduan eta artuemonetan zelangoa dan ikusita, beste pixu eta balio-neurketa bat dozu. Emen *kiloka* ez da neurtzen, ez *liburuka*, ez *tituluka*. Pertsona beraren nortasuna, bere izatea, bere balore pertsonalak kontuan artu ezkeru, zer? Dana ankaz gora, atzekoz aurrera, ezta? Zer deritxazu?

**“Ene Jainkoa! Eskerrak Zuri  
besteak langoa ez nazalako. [...]**

**Ene Jainkoa! Erruki zaitetz  
pekatari onetaz. [...]**

**Bere burua goratzen dauana  
beeratua izango da, eta bere  
burua beeratzen dauana,  
goratua” (Lk 18, 11.13-14).**

- \* *Fariseoa* = “*Badalakoa*”, bere ustez. Batez ere, an atzean dagoan gixajoaren ondoan, bestelakoa. Arrokeriak puztu egiten dau; eta puztuaz, usti, itsutu. Bere ustezko on guztiak atera ebazan argitara, plazara; baina danak arrokeriazko arrak jota, danak gauzeztanak. Jesusen begiak gizonarenak baino sakonago ikusten dabe; gizonaren begiak azal-mazaletan geratzen dira. Atakotzat joten ditu, beintzat, Jesus Jaunak. Eta zuk zer deritxazu?
- \* Besteak, burumakur atzean, bere burua txiki eta gauzeztan ikusten dau; ez dauka, bere ustez, aurrera atera eta erakustekorik ezer. Jaunagan uste osoa jarriaz, bere aurrean zabalik dago, Jainkoaren errukiari leku emonaz. Bai, ba: arroa ain dago bereaz beterik, ez dauka Jainkoagandik ezer artzekorik, txaloak eta esker onak ezik. Bera da naiko. Pobreak, apalak, txikiak utsik ikusten dau bere burua eta Jaunak bete dagiala eskatzen dau. Zein txiki eta zein aundi Jaunaren aurrean? Nork urten eban garbi eta nork trabes? Zer deritxazu?

10

## BAI, BAINA... MILA MAINA



- Gizakiok berez dogu jokera au: dana ondo ondo konpondu, norbere burua zuritu; gaiztakeririk gaiztoenak eginda gero, alan egiteko mila eta bat arrazoi asmau eta kaleratu. Munduaren asieratik auxe agertzen da: *Adanek Ebari, Ebak sugeari...* Inoren erruz izan dala egin dan guztia. Gu geutzako *abogadurik* onenak geu gara, zurrak eta biziak, izan ere. Ez ala? Zer deritxazu?
- *Baina...* baina-parra oneek aize-bolada baten eraginaz lurrera doaz. Norbere interesak aldatzerakoan, arrazoiak ere aldatu; gaurko zuria, biarko baltza da. On egin bear danean, zelango "*bainak*" egosten dira gure lapikotxoetan? "*Baina-neurriak*" ez dira beti bardinak izaten, norbera neurtu ala besteak neurtu bear danean. Gure "*bainak*" geure onerako erabilten doguz; besteen ortukoak, eurei tripalak egiteko. "*Bai bainako*" mundu onetan, zer esperientzi daukazu? Zer deritxazu?

**“Ez uste izan Ni bakea ekartera  
etorri nazanik lurrera; bakea  
ez, baina ezpatea ekartera  
etorri naz”**

(Mt 10, 34).

\* Jesus Jaunak ez dauka, ba, mainarik. Ez dau onartzen atxakiazko “bainarik” eta “mainarik”. Ez da beretzat lain, erdizka eta zirriborroka dabilenik. Ez dabil barriketan! “Bai, bainaka” ibiltea, pekatari izanda autortzea baino txarrago ez ete da? Jesus Maisuak ez dau nai bake ustelik: “Zer egingo da, ba?”, “Beste danak ere bardin dabiltz eta”, “Ainbeste barik ere ona izan leiteke”, “Gauzak kontuz eta neurritz artu eta erabili bear dira”... Beste olakorik gogoratzen jatzu? Zer deritxazu?

\* Jesus ez da errez moldatzen edozelango egoerara eta girora. Ez dau onartzen edozelango guzur-bakea. Etorri ere, ortik dator nasaikeria eta konponketa itxusia. Ezpatea dakar: adar igerrak inausteko, zati ustelak garbitzeko, kaltegarri jakozan xomorro eta gatxak osatzeko, bideko sasi-sastrakatan defenditzeko, norberagan doguzan arerio gaiztoak menderatzeko... Gaurko kristau bizitza ikusita, ez ete dogu erabilten *baina* eta *maina* geiegi? *Baina* eta *maina* askogaz, ba ete dago ganorazko gizon, emakumerik ateraterik? Zer deritxazu?

## BAKOITZARI BERE DA ZUZENBIDEA



• Bakoitzari berea, zor jakona; bere esku-bideei eta izateari dagokiona: izen ona, bizilekua, eskolea... Ez da betebear samurra! Indarra, politika, jatorria, erlijioa eta abar, eragin aundikoak dira, batzuk goregi eta beste batzuk beeregi ipinteko. Batzuei, tokatzen jaken baino geiago; eta jakina, beste askori, tokatzen jakona baino gitxiago. Eta guztien artean sartu daigun Jaungoikoa Bera: *Tokatzen jakon baino gorago ala beerago jarten dogu bizitzan?* Zer deritxazu?

• *Zuzenbidea, bide zuzena:* ez gorago, ez beerago; ez aruntzago, ez onuntzago... Betiko gizarteko grina eta burruka: *nork gorago igon;* jakina, geiago eukiteko eta al izateko. Bein batzuk goian dirala, areek bear baino gorago, besteak zapalduta, tokatzen jakezan erdiak edo geiago galduta edo... *kenduta*. Eta, jakina, gauzak olan dira eta izango, eta ez dagiola orri inork ikutu, ez ori aldatzen alegindu. Zigorua izango da. Zer deritxazu?

**“Emoiozue Zesarri Zesarrena,  
eta Jaungoikoari  
Jaungoikoarena”**  
(Lk 20, 25).

\* A zelako lakio-sarea jarri deutsoen Jesusi aurrean! Eta ondo asmauta jarri ere. Orduan, judeguak erromatarren menpean egozan; abertzale jendea euren aurka asarre bizitan egoan. Sarea ezarrita dago: *“Zesarri zerga emotea bidezko jaku, ala ez?”* Jakina, baietz badino, ez da *abertzalea*, traidore bat da; ezetz badino, *iraultzailea* da eta salatu egingo dabe. Bai dala gatxa beti zuzena izatea olakoetan! Ortxe neurtzen da gizonaren mailea. Antzekorik ikusten da gure artean? Zer deritxazu?


\* **“— Erakutsi egidazue denario txanpon bat. Norenak dira irudi eta idazkun ori? — Zesarrenak.**

**— Emon, ba, Zesarri Zesarrena.”**

Historiako bideak eta aukerak zirtizarta aldatzera ez dator Jesus. Aldatu bearrekoak gizonak eurak dira, gero eurak jokatuko dabe zuzenago. Txarto dagoala uste badozue, ekin eta aldatu zeuok; baina ez nastau or Jainkoaren agindurik. **“Eta Jaungoikoari Jaungoikoarena.”** Jakina, Jaungoikoari arlo aundiagoa tokatzen jako. Obeto esanda, Jaungoikoari berea emotekotan, gizonari ere berea emon bear jako. Beste *inor*, ez ezer ezin *jainko* biurtu. Anai lez jokatu bear. Erreza al da Jaungoikoari berea emotea? Ezin da egin: *Jainkoa gurtu eta gizona egurtu*. Zer deritxazu?

12

## BANEUKA ETA BALITZ, ALKARREN ATZETIK DABILTZ



- “*Au edo ori baneuka...*” “*Au olan barik, alan balitz...*” Eta zenbat olako! Dana dala, ezer egin barik gelditu. Baina norbera ondo geratu: nasai, zurituta, kezka barik. Beste era batera esanda: “*Balizko erroteak ez dau urunik egiten*”. Ain zuzen ere, pertsona zintzoa eta alperra ortxe bereizten dira: zintzoak beti aurkitzen dau arrazoa au edo ori egiteko; faltsoak, ostera, beti dauka atxakia, egin barik izteko. “*Alperra beti lantsu.*” Bizitzako esperientzia gogoan artuta, zer deritxazu?
- “*Baneuka eta balizko*” jokoa zaarra da, eta danoi berez sortzen jakuna. Etorri ere, egoki jatorku *atxakiaren estalki dotorea*. Eta atxakiak asmatzeko zuurtasun bat bai! Umetatik asita, au abilidadia! Okerrera jota, orduan norbere jokabide okerraren errua beti inork dauka. Guk egiteke izten dogunaren errua, beti inork. Baina... gauza bat da *atxakia* eta beste bat *arrazoia*. Ze alde aurkitzen dozu bien artean? Zer deritxazu?

**“Euki daukanari emon egingo  
jako, ez daukanari, ostera, bere  
ustez daukana ere kendu  
egingo jako”**

(Lk 8, 18).




\* Jesusen sakontasuna arritzekoa da; ez dau atxakirik onartzen. Eta aintzat artzetotan, urkoari errua txikitu eta gainetik kentzeko. **“Euki daukanari...”** egin egin dauanari emon egingo jakola: bai ba, arek eginaz, badauka. Egin dauana edo egiten jarri dauan alegina, borondatea. Gitxi edo asko, baina al dauana egingo dau; gaur ezin dauana biar egingo dau; bide batetik ez bada, besetik. Olakoak Jaungoikoaren aurrerako, **“euki dauka”**. Auxe da egiaren bidea: **“Daukanak daukanetik, ez daukanak biotzetik”**. Zer deritxazu?

\* Bigarren zatia aldrebesa benetan: **“Bere ustez daukana...”**, baina benetan euki ez dauka. **Usteak, atxakiak** mila eta bost. **“Baina usteak, erdiak ustel.”** Usteak eta atxakiak, ba ete dauke alkarren antzik? **“... kendu egingo jako”**: bere ustez bakarrik daukanak, ez dauka; ustetan, atxakitan, ametsetan galdu dau indar eta gogo guztia. Ori ez deutsa Jaunak aintzat artzen. **Euki edo ez euki**, au Jaungoikoaren aurrerako da. Jesusen pentsakera eta jokabide onek, poztu ala arduratu egiten zaitu? Zergaitik? Zer deritxazu?

13

BEGIAK NORAINO,  
BIOTZA ARAINO

A black and white illustration of a scroll with text. The scroll is unrolled from the top right. At the bottom right, there is a quill pen in an inkwell. The text on the scroll is in Basque.

Nire biotza beti egarri,  
iturria non aurkitu?  
Zeuretzat egin ninduzun, Jauna,  
arren, nitaz errukitu.  
Nire begiak eta biotza  
Ebanjelioz argitu,  
zure ederrez ase nagizu,  
ez naitela egarritu;  
ze zoriona nirea, Jesus,  
zure begiak banitu!

- “*Ikusi-makusi, zer ikusi?*” Danon begi-aurrean mila gauza, danetarikoak agertzen jakuz. Gaur bai erakutsi gauza politak, gustagarriak telebistan, papeletan eta! Eta ikusi-ala, dana eskuratu nai. Gainera edozeinen eskuan, *onetara ez bada, aretara*. Eta ikusi-ala euki ezik, ezin pozik bizi. Beti zerbaiten faltan, txakur gosetiaren plantan. Ezin pozik artu daukagunagaz. Au ere bada ba! Alako *txakur batek*, azur ederragaz errekan batetik bestera doala, ez dau ikusten ba bere aurrean errekan beera okela zati bat! Aokoa itzi, eta an doa... Baina urak eroan... Eta? Eta *ez bata eta ez bestea, utsik estea*. Olakorik ikusten dozu? Eta zer deritxazu?
- *Zer erakutsi, axe ikusi eta axe iruntsi*. Gauza neketsurik gitxitan, beti gauza gozoak eta esku-eskuan dagozanak. Erakusterakoan bai, baina gero? Nekeak eta kastuak apurka eta epeka, gozamenak gainezka eta esku-beteka. *Larrosak erakutsi eta arantzak gorde*. Zorionekoak, gordeten danaz jabetzen diranak, gordeten dana ikusteko susmoa eta zuertasuna dabenak! Zer ete da obe: bear ez dozunik ez ikusi, ala dana ikusi eta bear dozuna artu edo itzi? Zer deritxazu?

**“Zure ondasuna dagoan lekuan,  
zure biotza ere antxe dago”**

(Lk 12, 34).

- \* Jesusen ustez, zentzunak eta biotzak ibili bear dabe leenengo lekuan, eta gero begiak, eskuak eta oinak. Alderantziz bada, a zelango eztropezuak eta errebez-kadak! Jakina, fedez argitu eta igurtzitako buru eta biotza. Leenengo eta bein, benetako ondasunak bilatu; aztertu ondo, eta ondoren neurri egokian artu eta erabili. Baina beti ere *Jaungoikoaren begietan*. Jesusen jokabide oni zer deritxazu?
- \* *Ondasuna, ondamendia*. Benetako ondasuna ez bada, bai orixe! Guzurrezko, itxura utsezko eta erdizkakoak badira, a zelako biotzerrea laster! Ondasunak, gizona onduteko izan bear dabe, ez ondatzeko. Bere gorpuz-arimen osasuna eta ontasuna gogoan artuta. Aukerak egiten doguzanean, sarritan atxakitxoak asmatzen doguz, benetako ondasuna Jaungoikoa dala esateko; baina gero, gure denporea eta ardura nagusienak beste ondasun batzuen atzetik doaz. *Ondasunak eta ontasuna*, egon leitekez alkarren aurka? Zergaitik? Eta bietatik zein aukeratuko zeunke aurretik? Zer deritxazu?

14

## BERBETAN LABUR, EGINETAN SAMUR



- Jainkoak egin eban gizona, eta bere antz eta irudiko egin ere. Zentzun argiz ornidu eban. Miin bat emon eutsan, baina beste zentzunak binaka. Zergaitik ete? Berba gitxi eta egitada asko egin dagian edo? Baina ez ete dogu kontrara jokutzen? *Karkaxa asko eta arrautza gitxi...* Egin bear geunkezanak edo besteak egin bear leukeezanak kontatzen doakigu denpora erdia, egiteko asti barik. Berbiaren berbia, zarata utsa erdia... Zer deritxazu?
- “*Euskaldunaren berbia, notarioaren firmia*”, esan oi da. Gaurko euskaldunok ere firmara jo dogu. Mesederako? Berba-lapiko batzuek egin gara geu ere. *Berba-merke eta egitaile-karu*. Errezago egiten jaku “Gora Euskadi askatuta” oiuka esatea, txapel eta kaikua soinean erabiltea, isilago eta errimeago euskera zaintzen eta zabaltzen jardutea baino. “*Au egin bear litzateke*” esan bearrean, “*au eta au egitera beartzen dogu geure burua*” esanda, konprometitzea. Zer deritxazu?

**“Lur onean erein zan azia,  
barriz, Jaunaren Berbea entzun  
eta ulertzen dauana da: onek,  
bai, onek frutua emoten eta  
ekarten dau; batek eun, arek  
irurogei, besteak ogeita amar”**  
(Mt 13, 23).

\* Lur ona, mamintsua, ongarritua bada, a zelako ekarria! Ez dago, egon, berezko lur on eta emonkorrik; atxurto, mamurtu eta ondu egin bear da. Bai lurra... eta bai gizakia. Orrek etenbako ardurea emoten deutso bati: zelan kenduko alako bedar txarra; ze ongarrri bota bear jakon... Bertanbeera iztea naiko da, barriro dana sasi-larrez josi eta sastegi biurtzeko. Eta zenbat alegin geiago jarri bearko geunkan geure burua obeagotzen, geure bizitza frutu onez betetzen! Zer deritxazu?

\* Alegin au, zertan dago oinarrituta? Zenbat irabazten dan? Arlo onetan irabaztea, emotea da: emonaz, lagunduaz, norbera gizonago, elduago egiten da. Jakina, aleginak ere *amabi eratakoak ei dira*. Orra, alegin bardinagaz, frutu ezbardina: doaiak, aalmenak dira ezbardinak. Olako lur gozatsua beragan prestatu dauan gizonak bai emon frutu on ugari! Nik, zuk emon geinke frutu geiago edo obea? Zer deritxazu?

**BETI EGITEN DAUANAK NAI  
DAUANA, SARRI EGINGO DAU  
BEAR EZ DAUANA**



- Berezko *artaburu ederrik* ez da ikusten baztarretan; nekez eta lorrez, eta orduan ere ez beti. Berez ona eta eldua dan gizakumerik ez da jaiio. "*Pekatuan ninduan amak erne*" dino salmoak. Gogoak zertara emon, atara bizi danak, amaika astakeri egin bear dau bizitzan! Askoren ustez, *astakeriak eginaz*, beste barik, ikasiko dau gizon izaten. Bai gero? Astoari ala gizonari dagokiozanak eginaz? Zuk zer deritxazu?
- Berez datorrena ei da bakarrik ona, ezer landu eta zuzendu barik. Ez dakit ba! Landubako solotik ez da asko bizi; laster dira auntzak sasi-puntak jaten. Landu eta findu bako egurrari *taketa* edo *kirtena* deitzen jako. Berba oneek ez ete dira sarri erabilten, edu bateko gizakumeak izendatzeko? *Apelidu politak*, ezta? Zer deritxazu?

**"Inork nire ondoren etorri nai  
badau, bere burua ukatu begi,  
artu eguneroko kurutzea eta  
jarraitu beist"**

(Mk 8, 34).

\* Egia orrela bada, edozein *babalasto* ezin kristau izan. Izan, badira ainbeste "*basa-kristau*" deritxoena. "***Burua ukatu***", au da: zaldi gainean doanak ezi eta zuzendu bear azpikoa, ez azpikoak gainekoa. Zentzunak eta kristau fedea izan bear gidari gizonagan, noiz zer eta zelan egingo, eta ez aldian aldiko aizeak edo umoreak. *Ukatu*: aztertu, neurtu, askatu, bixkortu, moteldu... neurri barruan erabili. Au da, *gizatasuna landu*. Zer deritxazu?

\* "***Eta jarraitu beist.***" Maisu egokia aurrean doguna: Jesus Gure Jauna. Bizitzan zear bere antzera bizitzea, jokatzea... ori da *kristau izatea*. Ez gero meza entzun eta plant..., elizaz ezkondu eta planto... Emen plantorik ez dago, plantau egin bear da benetan. Kristau izatea Jaunaren grazi berezi bat da, baina baita norbere aldetik erantzun zintzoa emotea ere. Kristau katolikuak, ala *katiluko kristauak*? Ze alde aurkitzen dozu bien artean? Zer deritxazu?

16

## BISTA ONA ETA ALKAR IKUSI EZIN




- Arrokeriazko eta amorruzko *bekoki astunagaz* beti ere gitxiago ikusten da, edo bapez bear dan moduan. *Ikusi ezinez, mundua dago gainez*. Eta ikusi ezinak alkar jotera daroa sarri askotan. Ardura aundiz beerantza begiratu ezik, edo barru garbiz ibili ezik, bear dan lez ezin ikusi. Eta baztar asko jo bear. Zer da, ba: *begiko gatxa, ala barruko arra?* Zer deritxazu?
- Bista ona, baina inbidiak biotzari eragin egiten deutso, eta zist eta zast miina erabili, urkoa aunditu eta ez dan modukoa ipini arte; eta orduan ezin ikusi bear dan moduan. *Biotz garbiak* lagundu ezik, aurpegiko begitxoak ezin ikusi gauza diran bestean. Ezin ikusi gura ta be! Ezin ikusi, *gura ez dalako!* Begi batzuen gatxa *betaurrekoekaz* zuzendu leiteke; barruko begiak, barriz, *betozkoa argituaz, biotz barrua garbituaz*. Gatx bietatik zein da errezago konpontzea? Barruko *ikusi-ezina* ala *ezin-ikusia* da? Ze alde dago? Zer deritxazu?

**“Gorputzaren argia begia da.  
Zure begia onik badago, zure  
gorputz osoa argitsu izango da”**  
(Mt 6, 22).

\* *Ebanjelioko iturrietan zure begiak egu-  
nero garbitu egizuz; baietz laster ondo  
ikusten asi! Ondo ikustea auxe da.* Jaun-  
goikoak Berak ikusten dituan modu eta  
neurrian gauzak ikusi eta artzea. *Ez aun-  
diago eta ez txikiago.* Zer besterik nai  
leuke kristau zintzoak: Jaungoikoaren  
aurrean diran lez gauzak ikustea, gero  
bere naia egiteko ere. Orretarako zer  
egin bear da? Zer deritxazu?

\* Norbere barrua garbi eta zuzen eukitea,  
orra urko laguna bear dan lez ikusteko  
sendagaia. Botika ori zelan lortu daiteken?  
Ara, *iru-lau gauzok alkarregaz naasta-  
tuaz:* Guztiok Aita bat dogula sinistea,  
norbere burua dan lez ezagutzea, maita-  
sunez jokatzeta, errukizko biotza ager-  
tzea... *Merke ala karu dala uste dozu*  
sendagai au? Zer deritxazu?

## BOST XENTIMOKO PUPUA ETA AMAR XENTIMOKO TRAPUA



*Noiz edo bein atseginez  
ta geienetan saminez,  
auxe da bizitza, zinez.  
Kurutzean Zu ikusten zaitut  
kaliza edan ezinez!  
Zugana nator zotinez,  
otoitz bero bat eginez,  
maite nozula jakinez.*

- — Zer, Kepa, aspaldion naiko neke lan, ezta?  
— Bai, beti zeozer gure bizitzan, baina tira...
- Zer, Andoni, polito gabiltz, ezta?  
— Polito dinozu? Polito izurratuta bai!

Ikusten? Batzuk beti *"naiko gaizki"*; beste batzuk, beti *"naiko ondo"*. Zer gertatzen da, ba: *pupua ala trapua ezbardina?* Zer deritxazu?

- Zergaitik ete da ainbeste *ileta eta maina?* Inoren erruki-eske, ala norbere bizitzaren barri emon gura? Norbere *zauriak* inoren lastimaz igurtzi ezkerro, bigundu eta gozatu egiten ete dira, ba? Izan ere, *pupuari* ondotik jatorkon *putz* apurtxo batek on egiten deutso... Baina arantzatu bat sartu jatzula eta ez kanpai danak jo alean ipini! Zer, aspaldion *bizitzako pupuak* ixilean artu eta eroa-teko kemena geitu ala gitxitu egin jaku? Zer deritxazu?

**"Nire atzetik etorri nai dauanak, uko egin begio bere buruari, artu begi bere eguneroko kurutzea, eta jarraitu beist. Izan ere, bere bizia gorde nai dauanak, galdu egingo dau; bere bizia Nigaitik**

**galtzen dauanak, ostera, gorde egingo dau. Zertarako dau gizonak mundu guztia irabaztea, bere burua galdu eta ondatzen badau?"** (Lk 9, 23-25).

- \* *Neu gora eta neu beera*, inguruan beste inor txarrago egon leitekenik ere ez! Nire ardurak, nire nekeak eta arazoak... Ez inguruko jaiekaz poztu, ez inguruko iletakaz mindu.

Jesusen erakutsia bestelakoa da: beti besteengana zabalik eta arduraz bizitzea. Orregaitik parte artzen eban *eztegu eta jaietan*; eta bardin parte, *saminaldi eta arazoetan*. Pozaldiak geitu, minaldiak gitxitu, au zan bere *ardura nagusia*. Eta ori, inork baino nekaldi astunagoa bere gain eukala! *"Obe da emotea, artzea baino"*, esan oi eban. Zer deritxazu?

- \* Jesusen jarraitzaile zintzoen bizitzara begiratu bai, eta danak jokabide bardina: *euren buruaz aztu eta besteen kurutzak zelan arinduko, urkoari gaixoaldian zelan lagunduko asmatzen arduraz*. Eta egundo ere ez *naiko egiten* dauanaren usterik; *beti geiago eta obeto* egiteko amesetan. Jakina, emen jokoan dagoana auxe da: *mota bietariko jokabideetatik*, zeinek laguntzen dau geiago gizon-emakume jator eta eldu izaten? Zer deritxazu?



18

## BURDIN OTZEAN JO ETA JO, ALPERRIK ABIL, KOKOLO



- Bai, alperrik jo eta jo ekin. Burdinea, burdina beti; jo zein igurtzi, bardin. Ez dago biguntzerik, ez gozatzerik. Eta zer dauko zer ikusirik burdinak gizakiagaz? Zera: ez al dozuz ezagutzen *burdinezko gizonak*? Gogorrak, betozko baltzagaz, ez koipez ez zigorrez bigundu ezin diranak? Justizia sarri aotan erabilten dabenak, errukirik eta antzekorik ere aitatzen ez dabenak? *Alperrik abil...* Arrazoiak, egiak, errukiak, maitasunak... eta antzekoak ez dabe balio orrelako burdinak moldatzeko. Baina gizakiak gara eta, ez ete dago biderik, modurik, *burdinbide* au *gizabide* biurtzekorik? Zer deritxazu?
- *Burdin gizonak* izan, eta arrokeriz gainera. Ona emen burdin gizonen artean goren dagozan *baloreak*: gogor egitea, ez parkatzea, "geu nagusi edo musturrak ausi", erronka mortalak txitean-pitean botatea, inguru guztia apurtu eta ankaz gora ipintea eta negarra eta bildurra zabaltzea. Orduan arrazoiak eta kontzientziak ez baina adar-ostikoak balio dabe. "*Eta gogorrena alkate.*" Olakorik dan etxean, errian zer ikusten da? Aurre-rapenik bai? Zelan jokatu olakoetan? Zer deritxazu?

**“Norekin konparatuko dot  
gizaldi onetako jendea?  
Noren antzeko dira? Plazan  
jesarrita dagozan mutikoen  
antzekoak dira, alkarri deadarka  
dirautsoela:**

**«Guk txistua jo deutsuegu eta  
zuek dantzarik ez; negar-soinuak  
jo eta zuek negarrik ez.»**

**Izan ere, etorri da Joan  
Bateatzailea, ez jan ez edan  
egiten ez dauala, eta «burutik  
dago», dinozue. Etorri da  
Gizasemea, jan eta edaten  
dauala, eta esaten dozue:**

**«A ze tripontzi eta mozkorra,  
zergalari eta pekatarien laguna»**


(Lk 7, 31-34).

\* **“Txistua jo eta ez dantzarik, iletea jo  
eta ez negarrik.”** Jesusek ere aurkitu  
ebazan burdin gizon gogorak: ez batera  
eta ez bestera, ezin bideratu, ezin iku-  
siazoz egia. Ikusi nai ez dauana baino itsu  
txarragorik bai? Zuria erakutsi eta baltza  
dala erantzun... Eginak egin ebazan,  
baina alperrik; burdin otzean jo eta jo.  
Izan ere, eguzki beroak argizaria urtu egi-  
ten dau, eta buztinea gogortu. Olakoren  
bat ete gure artean ere? Zer deritxazu?

\* Ba zan, ba, Joan Bateatzailea gizon  
zuzena eta *“santu gogorra!”* Ez jan ez  
edan ganoraz, basamortu legorreatan  
otoitz eta penitentzi egiten bizi zana eta:  
**“Ori ez jagok burutik sano”.** Badator,  
Jesus, lagunartean dabilena eta: **“A ze  
tripontzi eta mozkorra!”** Joan burutik,  
Jesus tripatik... eta eurak? Ezagutzen  
dozu gaur olakorik? Eta guk ze arrisku  
dogu orretan jausteko? Zer deritxazu?

19

## BURURIK EZ ETA TXAPELA NAI



• *Bururik ez...* Buru-bolia bai, ondo neur-tu eta erakustekoa. Bai aleginak egin ere, garbi eta apain eukiteko! Baina “buru-duna” eta “burutsua” ez dira bardin, ezta? Barruko argia, zentzuna, arrazoibidea, jakin naia... Eta au ez da begiz ikusten, au erakutsi egin bear da eguneroko joan-etorrietan. Barruz ondo ornidutako buruari egoki datorkio txapel eder bat. Zer deritxazu?

• *Txapela:* berba au euskal nortasunaren ezaugarri bat dozu. Olan dala, txapela bere lekuan euki nai bada, azpikoak euskal nortasuna bearko dau. Ipini, ipini... txorimalo baten gainean ere ipini leiteke txapela, naiz kaikua. Baina txapelik aundienak ere ez dau buru utsik betetzen! “*Txapeldun*”, berba ederra euskaldunen artean: urte askotako aleginak saritu eta bedeinkatzen dituan ezaugarria. Orduan, *txepel* eta *txapel* eza bardinak dira? Bizitzako karreran nori jarriko zeunskio txapela?

**“Ori, ori, morroi zintzo eta leiala! Gitxian zintzo izan zarean ezkerro, askoren buru jarriko zaitut. Sartu zure Nagusiaren pozetara. [...] Morroi gaizto eta alperra. [...] Kendu egiozue talentu ori eta emon amar daukazanari. [...] Eta morroi alper uts ori bota kanpoko ilunpetara”**

(Mt 25, 23-30).

\* **“Ori, ori!”** Ekintza eder eta neketsua patxadaz egiten dabilenari, edo burutu dauananari eskeintzen jakozan eupadak eta txaloak. **“Morroi zintzo eta leiala”**, artutako agindua betetzen zintzoa, erri-meia, eroapentsua; umore-aldikadaz ez dabilena. Eta *leiala*: bialdu dauanaren aurrean, emon bearco dauan erantzunagaz leiala, atxaki-matxakiz ez dabilena. Aizeak nora, ara dabilena, ez beintzat. **“Sartu zure Nagusiaren pozetara.”** Ori bai dala benetako *“txapela”*, ezta? Zer deritxazu?

\* **“Morroi gaizto eta alperra”**: daukan apurra ere kendu; alperrak leendik dauka galduta; alperrik euki dau, alperrek euki dau aukerarik asko, baina ez dau zintzo jokatu. Atxakiak ez eutsan balio izan. *Gaiztoa eta alperra*: Titulu ederrak bizitzaren azkenean jasoteko! **“Bota kanpoko ilunpetara.”** Orixe bai dala *txapela* —*buru eta guzti*— betiko galtzea. Bizitzako txapelketa au bein bakarrik jokatzen dala jakinda, zelan bizi bear genduke? Zertan aldatu bear dogula, uste dozu? Izan leiteke bat arduratsua munduko arloetarako, eta alperra Jainkoaren aurrerako? Zer deritxazu?

## DAGONEAN DAGONTXOA, AI ENE GIZONTXOA

*Ene Aita maitagarri,  
Zuk dakizu nire barri,  
Aita ta seme deitzen deitsagu  
guk biok alkarri.  
Zure eskua ekarri,  
Espiritua ezarri;  
seguru nago, Zeu zaitudala  
betiko oinarri.*



• Errekako urak ez doaz beti bardin; ezta bizitzako joan-etorriak ere. Gitxiagogaz ere sarri ibili gara, eta gaurko askogaz bestean bai, edo obeto. Asko euki eta geiago nai, aor zelan kentzen dan logura... Auxe da *ase-ezina*, mutilak! Gorputzaren onerako diran gauzetan neurri barik, eta zentzun eta arima-koetan, barriz, ondo neurtuta. Al danik *geien* eta al danik *gitxien*: zertan egiten dogu batera eta zertan bestera? Zer deritxazu?

• "*Daukanak dauka, ez daukanak baleuka.*" Albokoak daukanaren inbidiz, norberak daukanagaz ere poztu ezin. Nor da benetan aberatsa? —*Daukanagaz konforme bizi dana.* Orretarako barrua bear da aberatsa. Pilatzen, danok gabiltz zerbait pilatzen bizitzan zear: udazkeneko ego aizeak orbela ugari pilatzen dau; udazkenean baserritar zintzoak, otzarakadaka sagar eta intxaur. Bete, edozegaz bete leiteke otzarea; baina, *Jaungoikoaren aurrerako*, edoze-lakoak dira bardin? Jesusek gaur dinoskunez: zeintzuk dira *baleko*, eta zeintzuk *alperreko*? Zer deritxazu?

**“Bilatu egizue, bilatu,  
Jaungoikoaren Erreinua, eta  
gauza guztiok gainezka emongo  
jatzuez” (Lk 12, 31).**

\* *Itzarrik* egiten diran ametsak, *lotakoak* baino obeak ala txarragoak? Lotan amets egitea normala da; baina itzarrik egiteko, norbera dago *bear ez dan moduan*, gaixo. Kaltegarriago izan daiteke. Itzarrik egindakoak norberak neurtzekoak ere ez dira. Ondasunen soinura dantzan dabil-tzanak, eta ortik datozen ondorenak, ez ete dira *lautik iru* amets utsak, udazke-neko orbelak? Zeuk zelangoak gura zeunkez azken orduan Jaunaren aurre-rako? Zer deritxazu?

\* **“Gauza guztiok gainezka emongo jatzuez.”** Bai, gero? Jesusek ez deusku *irusaku* egingo? Esatea ere olangorik! Makina bat *mila miloi* joan jakoz atzetik, eta dinoan au egi pozgarri dala autortzen dabe. Au ere bada ba! Geienak bazta-rraan *simaurtzat* itzitakoak, banaka batek *urre gorritzat* bilatzen eta pilatzen. Eta alderantziz. *Zoriona*, asko eukitean ete dago, ala asko izatean? *Diruak dakarren aunditasuna* ez ete da azalezkoa? *Santu jainkozaleak* ala *mundukoi atseginzaleak* ete dabe arrazoiak? Zer deritxazu?

## DIRUA MORROI ONA, BAINA UGAZABA TXARRA



- *Dirua morroi ona.* Bai, baina morroi dan bitartean. “*Morroia*”: norberak bear eta nai dauan *orduan*, *neurrian* eta *moduan* erabilten dana da. Burua naastatu eta ilunduten ez deuskun artean. Egia esan, dirua ez da gauza jateko, baina bera barik ezin bizi. Orixen, bizitzeko bear dan ainean erabili bear: gizon lez bizitzeko, urkoagaz lagun zintzo lez bizitzeko. Errez da dirua neurritz eta zentzunez erabiltea? Zer deritxazu?
- *Dirua ugazaba txarra.* Zergaitik ete ori? Bera norbere *jaun eta jabe* egiten danean, geure senetik ateraten gaitualako? Ona emen esaera bi: “*Diruak txakurrari ere dantzan eragiten deuto*”, “*Zorribiuztua baino pizti txarragorik ez dago*”. Zetatik datoz esaera biok? Zeuk orrela deritxazu?


**“Kontuz! Gorde diru-gosetik!  
Inori ez deutoe bere  
ondasunak bizia segurtatzen,  
ugari badauka ere”**

(Lk 12, 15).

- \* **“Gorde diru-gosetik!”** Ase-ezina, gaixo zitala! Zenbat eta geiago euki, orduan eta egarri biziagoa. Eta diru-gose orrek eraginda, beste guztiak bazartu, azkenengo lekura ekarri: *familia, izen ona, lagunak, egia, osasuna, Jainkoa...* Jesusek baekian gure barri. Ez ala? Zer deritxazu?
- \* **“Jainkoak esan eutson: Burubako alako ori!”** (Lk 12, 20). Ondasunak pilatu eta pilatu, naiz bide txarretik bilatu. Baina ezin bizia luzatu! Gainera, kontu emon bear, dana itzi bear, eta norentzat izango guztia? **“Zertarako dau gizonak mundu guztia irabaztea, bere burua ondatzen eta galtzen badau?”** (Lk 9, 25). Ori txarrena: bizia ondatu eta galdu. Dirua irabazi eta bizia galdu... Balio ez dauan ondasuna ugari, eta balio dauanik bapez! Ondatzen gaituenak obeak? Zeintzuk dira batzuk eta besteak? Zer deritxazu?

22

## EGIZU ON, EZ DAKIZULA NON



- Mesedea, mesede orde. Au jokabide on-tzat daukagu. Mezea, meza orde; *mezako* esan oi da. *Mezea ere trukean!* Beti kontuak ateraten nori zer zor deutsodan, edo zenbat itxaroten dodan beragandik. *Zor izan edo merezi.* Ez al dira barru-eragin biok, on egitera geien bultzatzen gaituenak? Eta nondik onako au: *Egizu on, ez dakizula non?* Zer deritxazu?
- *On egin.* Baina zer artu edo artuko dan kontutan izanda, on egitea al da? Ezer itxaron barik, uts-utsean on egite ori, ez ete *tontoarenak* egitea. *Norberagaz aprobe txatu* egiten dabelakoa-edo. “Ordea”, ori da erregaluko *kordea*. Ba al dakizu nor dan, berez il eta ondo ordainduta lurperatu ebena? “*Debalde jauna.*” Zenbat doango egitada ikusten dozuz inguruan? Eta zeuk zer egin zeinke olakotan? Zer deritxazu?

**“Zuei on egin deutsuenei on egiten badeutsezue, zer irabaziko dozue? Pekatariak ere egiten dabe beste orrenbeste.**

**On egin eta emon egizue aurretiaz, ordainaren usterik izan barik, eta aundia izango da zuen saria eta Gorengoaren seme izango zaree” (Lk 6, 33-35).**



\* Jesus ez ebilen albora begira, *nori zer zor* ete eutsan kontuak ateraten. *Aita* eukan gogoan beti: **“Izan zaitez zeruko Aitaren antzeko: zintzoen eta gaiztoen soloetara eguzkia eta euria bardin ixuriten dauanaren seme izan zaitezten.”** Erriak ao batez esaten eban Jesusen jokabidea ikusita: **“Dana ondo egin dau.”** Eta eginalak eginda gero ere, au esan bear: **“Morroi ezerezak gara: egin bear genduana egin dogu”** (Lk 17, 10). Non aurkitu olan jokatzeko indar sekretoak? Zer deritxazu?

\* Jesusek on egiteko orduan, gaixo eta beartsuak aukeratzen ebazan, batez ere. Baekian eurak ezin izango eutsela egundo ezegaz ere ordaindu. Beti doan jokatzen eban, Aitak gizonak salbatzera bialdu eban, eta ori zan bere egitekoa. Beartsuak izan ziran *ondoan ulertu eta onartu* ebenak Jesusen *Ebanjelioa*, eurentzat izan zan Barri ona: *doango maitasuna, salbazinoa*. Eta gu kristianauok Maisu orrexen jarraitzaile gara. Zer deritxazu?

## EGON ADI LO ETA JANGO DOK ME



- Beti lolo, beti lelo... Arrainak igesi eta gero bota amua. Olan beteko dok sarea! Ardurabakoa beti prest *erdibana* egiteko, baina inoren izerdiz irabazitakoa. Alper-rari soloa berez egiten jako gero eta txikiago; eta azkenean, inoren soloko *artaburua* jan gura. Izan ere, badira jaiotzatik "*parora*" joten dabenak. Bizit-zan ikusi eta ikasi dozunak zer dinotsu? Zer deritxazu?
- Firifara dabilenak "*tripazorriak*" sarri. Eta "*etxe utsa, gerra utsa*". Orduan auzora erruki eske. Orretarako, errukia eskatu aurretik, norberaren burua estutu bear da *erruki barik*. Jaunagandik artuta ainbeste indar eta doai euki, eta orrela alperrik galdu bear! Zer deritxazu?

**"Ondamendira  
daroan bidea zabala da,  
eta bizitzara daroana, estua"**

(Mt 7, 13).

- \* Pertsona bakoitza goaz geure geroa egiten, ona naiz txarra. Onetan ezin dau *batek bestearen orde*z. Jesusek erakusten deuskun bidea egunero egiten doa zati-txo bat. Eta ori nor *bakoitzaren egitekoa* da. Bizitzako bidean zear zenbat *bidekurutz* aurkitzen doguzan! Bat zein beste aukeratu geinke, baina biak ez daroe azken bardinera; ez orixe! Errezena artzea, beste barik, *ez oi da onena*; aldazbeerakoa da eta. Dana dala, Jesusek dinosku, zerurako bidea aldazgora dala eta ondamendirakoa, zabala. Zer deritxazu?
- \* "*Emen zerua eta gero zerua, ez da gauza segurua.*" Izan ere, betiko zoriona ez da berez altzora jausten dan *makatza*. Ona bada, kostako da! On-ona ez da kolpe baten egiten, elduten. "*Geienak ere ortik doaz*", "*gaur ez dago ori modan*", "*ori geu bildurtzeko dinoe*", "*orrenbeste barik ere zerua irabazi leike*"... Eta zenbat olako "*potxolokeri*" entzuten dozuz inguruan? Gogora ekarri beste batzuk. Zer deritxazu?

## EGUZKIA NORA, ZAPIAK ARA

Zuk ekarri gaituzu  
munduko argira,  
lurreko bizira,  
eta bateoz sortu  
bizitza barrira.  
Ixuri, arren, Jauna,  
grazizko dizdira,  
bear dogun indarra  
biotzen erdira;  
maitez bizi gaitezen  
alkarri begira.




- Izan ere, “eguzki epela, katuen zerua”, esan oi da. Besteoi ere gogoko jaku eguzki epela. Baina beti eguzki epel bila ibiltea ere! Eta eginbearrak norentzat eta noizko? Beti eguzkirantza burua, makurtuta, amaika “eguzkilore” munduan! Batean etxe ostean, bestean Benidorren; baina beti eguzkitan. *Beti eraz artzen dabe eguzkia: gaur ezkerretik, biar eskumatik. Narru gorritan jarri bear dala? Eguzkia ondo artzea da kontua. Bardin eratarra, zein atzekoz aurrera. Olako “eguzkilore” asko ezagutzen al dozu? Olako pertsona izateak ze ondoren ekarri leike? Zer deritxazu?*
- Beti eguzkitan egotearren, beste dana saldu edo arriskatu: lagunak, sinismena, erria, norbere izena, familia... Eguzki-lekuak, geienbaten, goi-lekuetan egon oi dira. *Untzorri* onaren antzera, “orma” sendoak bear inguruan, burua jasoteko. Ezkutuan, zokoetan, lur legorretan, basamortuan, ez dago zeri oratu, zelan gora igon. Txarrena, ormea jaustean, untzorria ere azpian arrapatzen dala! Baina, al bada, jausi aurretik, beste “orma” bateri oratu eta dana konponduta. Ulertu dozu untzorri eta orma-kontu hau? Zer deritxazu?

**“Zer ikustera urten dozue  
basamortura? Aizeak darabilen  
kainaberaren bat?” (Lk 7, 25).**

\* Joan Bateatzailea bai gizon zuzena! Ez zan izan ez aizeak darabilen kanaberea, ezta *“eguzkia nora, zapiak ara”* dabilen jan-txakurra, ezta gora igoteko *“orma”* bila dabilen *“untzorria”*. Traba, arrisku eta eragozpen guztien gainera, bere lekutik urteten ez dauan gizona, unean uneko gogoak barik, borondate sendoak darabilen gizona. Jesusen eritziz, *“Emakumeagandik jaiotakoen artean, ez da inor Joan baino aundiagorik.”* Orduan zer da, Jesusen eritziz, gizon-emakume aundi izatea? Ze ezaugarri ezarriko zeunskioz? Zer deritxazu?

\* Ikusten danez, gizonak, elduten doan neurrian, bere barruan bear dau bizi-iturria eta indar-emoia; bere barruan bizi-zentzunaren oinarria, beroa eta bizia darion eguzkia. Olako batek daki bakarrik tente irauten, aize batek zein bestek jo ingurutik; eguzki epela naiz izotz baltza egin, beti bidean aurrera egiten dau. Beti dago aukerarik asko, gizonaren aunditasuna eta txikitasuna neurtzeko. Gaur eta emen ere bai? Non? Zelan? Zer deritxazu?

**ERRENKA BIDE ZUZENETIK  
NAIAGO, OKERRETIK  
LAU ANKAN BAINO**



*Aita maitagarriena,  
argitu nire barrena!  
Bixkortu naizu zure bidean,  
senda barruko errena;  
gero Zugana eldu nadila,  
orixe da ederrena.*


- *Errenka bide zuzenetik.* Pauso gitxi, baldar eta nekez emonda ere, baina bide zuzenetik beintzat. Izan ere, bide zuzena sarritan aldatzgora da; eta geienetan, ingurukoak daroen biderearen kontrakoa izaten da. Gainera, bide zuzena artzea ez da *“datorrena datorrela”* jokatzeari; bestalde, *neutrala* izaterik ez dago, *zelan edo alan* jokatzetik ere ez. Norberak kontzientziaz aukeratu egin bear dau eta gogotsu ekin. Ez ala? Zer deritxazu?
- *Lau ankan bide okerretik.* Errezago dala eta; geienak ere ortik doazela eta; epe laburrera onura eta atsegin geiago lortzen dala eta... Baina ori eta guzti ere, zenbat eta arinago joan, orduan eta urrunago norbere elburutik, gero eta okerrago. Alakoak inoana: *“Ez noa eleizara erren nagoalako; baina bai tabernara, erren egon arren”*. Urte asko, bide asko okerretara ibilita gero, *zelan zuzendu?* Erreza al da? Zer deritxazu?

**“Alegindu zaitze ate estutik sartzan. Benetan askok sartu nai izango dabe, eta ezin. [...] Begira: orain azkenengo diran asko, leenengo izango dira orduan; eta leenengo diran asko, azkenengo”**

(Lk 13, 24.30).

- \* **“Alegindu zaitze ate estutik sartzan”:** orretarako bide zuzenetik ibili bear. Batak bestea dakar. Nasai bizi izan dana, ezin da ate estutik sartu... *“Ate estua.”* Onegaz zer esan gura ete dau? Olakoren bat, kontizu: aurretiaz Jaunaren aurrean asko pentsatu ondoren, artutako bidea; andik joatearren, norbere burua sarri ukatuaz artzen dan erabagia; lagunartean nabarmen bakarrik geratzera eroaten dauan jarrera; norbere atseginen gainetik urkoari on egitera bultzatzen dauan Espiritua. Errenka bai, baina ate estura zuzen daroan bidetik. Olan dinosku Jesusek. Eta zuk? Zer deritxazu?
- \* **“Orain...”, “orduan...”** Ementxe dago untzea! *“Orain”:* gaztetan, sasoiari, dana erre eta esku-betea datorrenean; munduak txalotzen eta goraltzen dauanean, osasunez plenplen bizi danean... *“Orduan”:* negu-aurreko aize otzak jotzen dauanean; bizitzan ereindako aziaren frutua batzeko orduan; gizonak ez, Jainkoak dei egiteko orduan... Ez dira ordu bardinak, ezta? *“Oraingo”* azkenengoak, *“orduan”* leenengoak. Zer deritxazu?

## ETORKIZUNA, KONTAKIZUNA



- Ez egi txikia ere! Beti jaku gogoko *igarle* edo *astronomu* egitea, naizta lautik bat erdian jo ez... Izan ere, geroko ori beti da misterio, eta sarri gure arerio. Nork esan leio bere buruari: *“Ni beti auxe eta auxe izango naz”*. Pertonearen buru-biotzak ain dira aldakorrak! Eta inguruan jazoten diranak ain gogor eragiten deuskue! Liburu asko betetzen dira pronostikoz; uts emonda gero, danak zokora ostikoz. Egoera eta esperientzi onen aurrean, ze jarkera da zintzoena? Zer deritxazu?
- Emendik sei urtera zer etorriko, zer egingo arduraz, eta gaur eguerdiko lapikotxoa sutan erre... Barre? Ez dozu olakorik ezagutu ala? Leorte luzeak iragarten dagoan bat baino geiago, uste-kabeko euri zaparradeak busti dau. *“Olakorik ez da sekulan izan, ezta izango ere!* Aokada galantak, ezta? Orain artekoak badakiguz, emendik aurrera-koak noren esku? Nork dauka guzti onen kontrola? Egon, gure esku, zer dago? Zer deritxazu?


**“Gaur Neugaz egongo zara  
Paradisuan”**

(Lk 23, 43).

\* Kurutzean Jesusen eskumatara egoan lapurra, mutil ona bera! Kurutzean deseginda, azkenetan, beste lagunagaz batera, bota-alakoak botaten. Baina bien erdian eukenaren jarkerak eta erantzunak biotza zartau egin eutsan. Gitxien uste eban lekuan eta orduan eldu jakon Jaunaren deia eta ordua. Ori noren pronostikuan egoan sartuta? Olakorik ez dogu ezagutzen? Orregaitik, etorkizunaren aurrean zelan jokatu? Zer deritxazu?

\* Eta ori baino geiago: bere lagunagana biurtu eta zentzunezko bidera deitzen asi jakon: **“Ago isilik, ik eta nik ondo merezia artzen juagu; baina Onek ez jok ezer txarrik egin.”** Lapurra bera da lagunik zintzoena, bein bideratu ezker. Gaur zenbat modutako jendea gure artean! Noiz eta zelan bideratu? *“Olakoak sastegira”* eta antzeko larrosak jasoten dira sarri gure artean. Baina Jaunaren pentsakerak eta jokerak bardinak dira? Jaunak beti bideak, atea zabalik, beti itxaroten... Bizi dan artean, pertsonak zenbat jirabira emon leiken! *Etorkizuna, kontakizuna.* Zer deritxazu?

## EZ DA BIZI BEAR JATEKO, JAN EGIN BEAR DA BIZITZEKO



*Jan bear da bizitzeḡo  
eta ez bizi jateḡo!  
Jan, lan ta bizi, danen gainetik  
Zeu biotzez zerbitzeḡo;  
seme-alabok izan gaitez an  
o Aita, zeure antzeḡo.*

- Ez jateko, ez lo egiteko, ez lan egiteko... Orrek eta geiago egin bear da, *bizi izateko* pertsona lez. Bizitzea da elburu nagusia; besteetarik edozer elburu biur-tzen bada, galdu da gizona, berari dago-kiozan gogo egarriak okertu jakoz. Ez da bizi gizon lez, abere lez baino. Olako ardura batek larregian buru-biotzak ora-tuten badeutsoz, akabo gizona! Zer di-notsu zeuri esperientziak? Zer deritxazu?
- Lan, jan, lo... jan, lan, lo... Etenbako makina: lan eginaz, dirua irabazi; dirua, atsegina artzeko eta iruntsi-ala iruntsi-teko. Jan-lan-lotarako bizi dan batek, zertarako bear ditu Jaungoikoa, Eleizea, sakramentuak...? Zelan erabilten ditu familia, senideak, lagunak? Zer balio dauke berarentzat: adiskidetasunak, zintzotasunak, pozak, alkar-laguntzeak eta antzeko zerak? Zer deritxazu?

**“Ez arduraz ibili zer jango, edo gorputza zegaz jantziko. Bizia ez al da janaria baino geiago eta gorputza jantzia baino geiago? [...] Bilatu egizue leenengo Jaungoikoaren Erreinua eta Aren zuzentasuna, eta beste orreek geigarri emongo jatzuez” (Mt 6, 25.33).**

- \* **“Zer jango, zer edango, zer jantziko.”** Ez bedi izan ori zuen bizitzako ardura eta elburu nagusi. Ez ibili orren kezka eta ardura utsez. Jesusek ez dino olako gauzen ardurarik ez izatekorik; ezpa-bere, ez daigula, *ardurearen ardureaz*, geure buru eta biotza gogortu eta aizez bete. **“Bilatu egizue leenengo Jaungoikoaren Erreinua eta Aren zuzentasuna, eta beste orreek geigarri emongo jatzuez.”** Sinisten al dogu au? Zer deritxazu?

- \* **“Bizia ez al da janaria baino geiago?”** Orduan, jan-edanean ez da ase betetzen gizonaren bizia. Orduan, bizitzeko jan-edana baino zerbait geiago ere bear da. Gizonaren jatekoa edo bizigarria beste nonbaiten bilatu bear da. Bakea, justizia, alkarlaguntza, Jainkoagaz bat egitea, bizitza landu eta sakontzea... Ba al dago gaur olakoen gose-egarririk? Zer deritxazu?



## EZ DANEAN EZ DA, AL DANEAN FESTA



- Badira bizitzan gauza batzuk, norbere aleginez, aldatu al diranak. Baina beste asko ez; alperrik ekin eta eragin! *Buruaz arria jo, zein arriaz burua jo, bardin dok, kokolo!*

*Al danean festa*, au ere ez gauza txarra. Eta au al danik geien egiten alegindu bearra dogu; baina ez denporaz kanpo, beste eginbearrak albora itzita. Bestela, ondorenak ez dira izaten gozoak. *Kateak emoten dauan neurrian* bizi danak daki, beragandik, zer dan au. Alegindu gaitzezan al danik negar eta neke gitxien izaten bizitzan, baina neke-negarrak datozanean ere onartzen alegindu. Zer dinotsu onetaz zeure bizi-ikasiak? Zer deritxazu?

- Bizitzako olatuak buruz gaintetik datozanean, edo eta gauzak norberak uste dauan baino aldrebesago datozanean, zer egin? Ostikoka eta adarka eraso? Nori? Urkoari? Jainkoari? Norbere buruari? Ala dagonagaz konforme? Zelan lortu leike barruko bakea eta zoriona? Orduan, zein jokabide deritxazu onena?

**“Ez bedi izan Nik nai dodanez  
Zeuk nai dozunez baino”**

(Mt 26, 39).

\* Jesus jaizalea zan, bai berarentzat eta bai lagunentzat. Baina, beste askori lez, jai-bila joan eta kurutzeak urten bidera... Orduan ere ez eban egingo atzera, ez zan bere bidetik aldenduko. Aitaren naia ipinten eban *jai eta astegun* guztien gainetik. Bere jokabidea: *Jai egunetan ez irakin, kurutz-orduan lur jo barik ekin*. Izan ere, nortasun apur bategaz jokutzen dauan batek, bere bizitzako elburuari erantzun bear deutso; elburu orri lotuta bizi da, *askatasunez* eta *maitasunez*. Gazi-geza guztiak gogoz onartu eta eroaten ditu. Zer deritxazu?

\* *Erramuz goraka* jardun... baina barikuz: “*Ez dot ezagun*”. Jesusek ere festalagun asko izan ebazan, baina kurutzbidean *Zirineo* gitxi. Santuzale asko erromerietan, eta ukatzaile eta urkatzaile asko une larrietan. Jesusen eldutasun onek zer irakasten deusku? Zer deritxazu?

**EZ DAUKAZU DUDARIK?  
EZ DAKIZU ASKO, DUDA BARIK**



- Gizonaren zintzotasunaren neurria eta ezaugarria: jakin-naia, ikusi-naia, bilatu-naia... Egiaren egarria, argiaren bila ibiltea. Batzuk jakinago eta egarriago: beti entzuten, irakurten, aukera guztietan parte artzen, adimenaren doaia landuten. Sarritan zenbat eta geiago jakin, orduan eta egarria biziago. Eta ezer gitxi dakienak, danetan jakitun. Ez ezer entzuteko, ez ikasteko preminarik. Auxe da, izan ere, kristauaren ezaugarrietako bat. Zer ikusten dozu zure adinekoen artean? Zeren egarri da? Zertarako batzen da jende geien? Zergaitik? Zer deritxazu?
- Gaur, jakin, asko dakigu. Baina ez ete da egia utsik? Au da: buruan gelditzen dan egia, bizitzara jatsi barik? Edo besteen arrazoia eta egia zapaldu nairik erabilten dan “egia”? Olan balitz, ez ete litzatekez egi antzuak izango, bizitza barririk sortzen ez daben egiak? Kontu onek zelan emoten deutsu belarrira: *egia bizi, egia bete, egia egin...*? Zer deritxazu?

“— Ikusten al dozu ezer? [...]

— Bai, gizonak ikusten ditut, zugatzak dirudienak, baina ibiltan.

Jesusek barrero eskuak ezarri cutsozan begietan eta argiro ikusten asi zan gure gizona; osaturik gelditu zan, guztia garbi-garbi ikusten ebalan”

(Mk 8, 23-25).

\* “Gizonak-edo ikusten ditut.” “Edo” asko ipini eta erabili bear genduke gure eritzietan...” “Oraingoz eritzi auxe daukat nik”, “nik eta oraingoz”. Nik, eta zuk zer? Bakoitzak berea, ezta? Oraingoz, gaur biarkorik ez dakit. Izan ere, geure kredo berbera autortzen dabe santuak eurak ere. Baina kredoko egi bakoitza, bardin ikusten ete dogu eurak eta guk? Zugatz-antzeko “gizon” askotxo ez ete ditugu ikusten oraindino? Zer deritxazu?

\* Jesusek zenbat alegin guri irakasten! Gauza bakoitza bere neurri eta balioen barruan artu eta erabilten. Barrero beste *igurtzi* batzuek eginda gero, “**osaturik gelditu zan, guztia garbi-garbi ikusten ebalan**”. Gauza bakoitza bera dan bestean, ez aundiago eta ez txikiago. Jesusen *igurtzi* orrek non eta zelan artu ete geinkez gaur egun? “**Zeure sinismenak osatu zaitu.**” Orduan sinismenaren arazoa da gurea. Zer deritxazu?

## EZINA, EKINAZ EGINA

*Gauza askotxo dago bizitzan  
batera egin ezina,  
orduan egin barik ez itzi  
eguneroko pitina.  
Jauna, graziz bultzatu  
eta Zeuk bedeinkatu  
gure gaurko alegina;  
bion artean lortuko dogu  
bear dogun etekina.*



- Kondizino baten ezin dana, kondizinoak aldatu, eta al da egin. Badira “ezin” asko, eginkor biurtzen diranak. Ez arazoak eurak biguntzen diralako, baina bai norbera gero eta kapazago egiten dalako. *Kiroletan* lez, bizitzako bidean ere bardin. Zer uste dozu: zeure bizitzako gorengo mailaraino, toperaino eldu zareala? Ezin dozu geiago? Eginalak egin dozuzala uste dozu? Zer deritxazu?
- “*Ekina gogorra da*” entzuten da sarri. Aspertu barik, neurri barik, ekin egin bear. Eta lagun edo taldetxo baten laguntzaz obeto. Jakina, itxaropen sendoa bear da ordu baltzetan. Pausoz pauso egiten da *kilometroa*, arriz arri *jauregi* eder bat. Gizakia ere, eguneroko pausotxoakaz. Zerbait benetan lortu nai danean, gau eta egun jarduten da, mila bide barri asmatzen dira, bein eta birritan asi eta ekin. *Nai izatea al izatea baino* indartsuago da. Zuri bizitzak zer erakutsi deutsu? Zer deritxazu?

**“Nire berba oneek entzuten eta  
eginez beteten dituana, bere etxea  
aitz-gainean jaso eban gizon  
zurraren antzekoa izango da: jausi  
zan euria, etorri ziran uriolak,  
izan ziran aizeak eta jo eben  
etxea, baina ez zan lurrera jausi,  
aitz-gainean jasota egoan eta”**

(Mt 7, 24-25).

\* Gizonak, *bere indar utsez*, laster joten dau baztarra, ezin urrunera joan. Orregaitik Jesus Berak ere, goiko laguntzaren bila joten dau. *Jaunaren berbea eginez bete*: Jaunak eskeintzen deuskuzan argiz eta indarrez benetako mirariak egiten dira. Gogora ekarri *santuak*: nork baino nork gauza arrigarriagoak egin dabez. Zimenduak ezkutuan, lurpean egon oi dira. Baita zintzoaren oinarriak ere. Zenbat eta etxe aundiagoa jaso nai, orduan eta zimenduak sakonagoak. Olakorik ez dogu entzun edo ikusi? Pertsona apalen bidez Jaunak egindako gauza arrigarriren bat? Zer deritxazu?

\* “Gizonarenzat eziñezkoa, baina ez Jaungoikoarentzat”, inotsen aingeruak Mariari. Izan ere, gure bizitzako etxea jasoteko zimendua geugan ezarten badogu, ezin karga aundirik artu eta eroan, ezin bizitzako aize eta uriolai eutsi. Baina Jaunaren bide garbiak jarraitu eta bere esku indartsuari oratuta, zer da eziñezkorik? **“Dana al dot indartzen nauan Arengan.”** Bideko *ezinak* gainditzeko sinismenaren argia eta indarra bear, eta ez edozelakoak. *Ezinaren mendia* ezin da kolpe baten menderatu: pausoka ekin bear. Zer deritxazu?

## GIXONA GIXON, KATUA MIXON



- Gizona munduko errege, gauza guztien jaun eta jabe. Aspaldion, zer ez dau asmau eta egin? Baina gizona bera, bere gogo eta egitadetan, leenagokoa baino gizonago bai gero? Gizonak artu dau abiadea aspaldion! Izango ete dau naiko indar eta zentzun, mundua bide zuzenetik eroateko? Bere eskuz egindako tresna eta tramankulu artean, ez ete jaku bertan gatibu geratuko? Berak sortutako aurre-rapen eta ondasunen artean, ez ete jaku itoko? Zertan egin dau aurrera eta zertan atzera? Zer deritxazu?
- Gizonak beti izan dau *Jainko* izateko egarria, ametsa, Adan beragandik asita. Ori izan ei zan deabruak aurrean ipini utsan tentazioa. Ez egon nai inoren menpe, ez egin nai inoren esanik, ez emon nai inori konturik... Eta gero eta tribunal geiago baztarretan, *legezko eta ez-legezko*. Amar aginduak kendu, baina norbereak *amar mila* geiago ezarri. Zerk egiten dau *gizona txiki eta aundi*? Zer deritxazu?

**“Gogo gertu dago,  
baina aragia makala da”**

(Mt 26, 41).

- \* Gizonaren barruan, *Kantauri* itsasoan lez, sarri sortzen da burrukea: batera egin ezinezko gauza bi, bide bi batera egin gura, eta ezin... Zintzoa izan nai, baina lagunari ezetz esan bear; auzo-lanean parte artu nai, baina gogoko jatan beste zerbait ukatu bear... Eta *barruko kontra-aizeak* eurak baino gogorrago erasoten deutse sarri inguruko eraginak. *San Pedrori* ere ori gertatu jakon: *Otoitz egiteko orduan lo, eta burrukarako orduan lelo...* Ondo ezagutzen eban Jesus, baita bere bizia galtzeko arriskua ere. Eta azkenean pott, ukatu, dana galdu. **“*Il bear badot ere, nik ez zaitut ukatuko.*”** Gogo bai, baina aragia, gizonaren berezko izatea da makala, jauskorra. Jesusen erakutsi au egizat daukazu? Zer deritxazu?
- \* Ustez, gure burua sendotzat daukagu: *“Ni ez nau inork erabilten, neuk egiten dot neuk nai dodana”*. Esan bai, baina gauzak sakon aztertu ezker, zertan gara libre, geure eskuko? Geienetan gure asmoak kontatzen doguz eta ez egitadak; gero oker jokatu ezker, atxakiz zuritzen da norbere burua. Baina makalak esan eta autortu? Bai zera! Ordua datorrenean, *“jagi eta goazen”* esan eta egitea da gatxa, gitxiren jokabidea. Eguneroko gauza txikietan artu bear oitura ori; gero, aundiak datozeanean, ala jokatzeko lain indar izateko. *Jinmasia eta pratika* asko bear, gero bizitzako jokoan irabazteko. Zer deritxazu?

## GIZONAK EGIN, JAUNGOIKOAK EGIN



- Gizonari berez gogoko jako, berak ba-karrrik gauza aundiak egitea, inoren laguntza-bearrik izan barik. Sarritan, guzurtxoak esanaz, gainera: *“Neuk au eta neuk ori”*. Gaurko gizonak indar eta aalmen aundiak daukaz; leenago ezinezkoak ziran gauza asko, gaur errez eta eurrez egiten ditu. Martxa onetan, laster ezinezkorik ez ei da ezertxo ere izango... Ez gero! Ondoren eperdiko ederrak artzen doguz. Ondorengo porrotak, zein garratzak izaten diran! Gorengo arrokerizko teilatutik beeko karkaban lur jota geratzeko... Ain gatxa al da geure ertzak eta mugak autortu eta onartzea? Zer deritxazu?

- *Ekin* eta *egin*. Arlo onetan Loiolako San Inazioaren eritzia baleiteke argibide suertatzea geuretzat ere: *“Ekiozu lanari, zeuk bakarrik egin bear bazendu lez; baina, era berean, jokatu egizu, dana Jaungoikoak egin bear baleu lez.”* Jokabide bikoitz sakon au batera bizi leiteke? Zelan ulertzen dozu? Zer deritxazu?

“— Ez izan bildurrik, Maria!  
Jaungoikoak gogoko zaitu. [...]   
Begira, sabelean sortu eta  
semea izango dozu. [...]   
— Zelan izan daiteke ori?. [...]   
— Jaungoikoarentzat ez da  
ezinezkorik ezer. [...]   
— Ona emen ni, Jaunaren  
mirabea; egin bedi nigan Zuk  
dinozunez”

(Lk 1, 30.34.37-38).

\* Ona emen Maria, berak bakarrik bete ezinezko arazo baten aurrean. Bere buruari begiratuta, ain ezereza sentitzen da, alako eginbear baten aurrean! Baina or agertzen jako Jaunaren aingerua: “**Ez izan bildurrik, Maria! Jaungoikoak gogoko zaitu.**” Jaunaren asmo eta bi-deak dira oneek, zeure laguntzaz bete gura dituanak. Orretarako zeu zaitu gogoko eta zeu aukeratu zaitu. Eta, jakina, Mariaren buru-biotzetan geiago egin eban Jaunagan eban uste osoak, beragan ikusten eta sentitzen eban eze-rezak baino. Mariaren aunditasuna ez dago beragan. Non, ba? Zer deritxazu?

\* “Espiritu Santua jatsiko da zugana; Goi Goikoaren indarrak inguratuko zaitu kerizpean; Jaungoikoak ez dauka eta ezer ezinezkorik.” Mariaren barruko fede-argi guztiak biztu dira: ezer ulertu barik eta uste osoaren aurka uste izanik, bere *baietza* emoten dau. Sendo sinisten dau Jaungoikoak ez deusola uts emongo: Berak dakiala zer, zelan eta noiz jazoko dan. Sinistuta gero, dana ulertzen dau: “**Ona emen ni, Jaunaren mirabea; egin bedi nigan Zuk dinozunez.**” Orra sinismenaren indarra: pertsona gixajotu bearrean, edegi eta gauza arrigarrietarako prestatzen dau. Zeuk olan ikusten dozu? Zer deritxazu?



## GOGOZKO LEKUAN ALDAPARIK EZ



- Au geure narrutik dakigu. Berezko joke-rea dogu jaiotzatik guztiok. Jai-soinura ankak arin, lanerako orduan nonai min... Gogozko arlorako beti prest. Orduan beti umorea, astia, gogoa; beti baietza, eta bixkor gainera. Gogoz kontrakoa bajatzu, mila atxaki. Zeintzuk dira olakoetan asmatzen diran atxakiak? Zer deritxazu?
- An-emen izaten dira banaka bat, *zirt edo zart* egiten dabenak: besteak itzitako arazoetan borondate aundiz sartzen diranak buru-belarri. Zergaitik ete da? Ea, atera daigun emen geure artean, muxin eginda, inorentzat izten doguzan arazoak. Guk geuk zer egin geinke olako batzuetan parte artzeko? Ez al daukagu sartu bearrik? Zer deritxazu?


**“Kendu zakidaz aurretik,  
Satanas ori!  
Zure bururakizunak ez dira  
Jaungoikoarenak eta,  
gizonenak baino”**

(Mk 8, 33).

\* Jesusen erakutsia ez da zelan-alangoa: leenengo eta bat **“ez naz etorri neure gogoa egitera”** dinosku. Olan bada, ez dabil aukerak egiten: au gogoko edo ez gogoko, gozoenak artu eta garratzenak izteko. **“Bialdu nauanaren gogoa egiten diardut.”** Aitari begira bizi da, eta Ari atsegin jakona egitera joten dau. Aita da bere bizi-ardatz, eta orren inguru dabil beti. Zer deritxazu Jesusen jokabide oni? Guk zertan dogu aldatu bearra? Zer deritxazu?

\* *“Aitak emondako lana burutu.”* Au da Jesusen bizitzako elburu nagusia, gozo-garratz guztien gainera. Eta ez gero bildurrez, maitasunez eta leialtasunez baino. Ori bete ezik, zertarako bizi? Badau bizitzeak zentzunik? **“Zertarako jako gizonari mundu guztia irabaztea, azkenean bere burua galtzen badau?”** **“Nire atzetik etorri nai dauanak ukatu begi bere burua, artu bere eguneroko kurutzea eta jarraitu beist.”** Emen ez dago atzera begira egoterik, ezta? Zer sentitzen dozu Jesusen dei onen aurrean? Bere jokabide oni zer deritxazu?

## GURE POZAK POZURA, MUNDUKO GAUZEN MODURA



Gure ametsak ederrak dira,  
arantza bako larrosak;  
baina ametsak baino geiago  
bear dau zerbait biotzak,  
Jauna, zure bideak  
dira askoz obeak,  
bizitzeko aproposak;  
eta ez dauko inun bardinik  
Zugandik datorren pozak.

- Gure pozak, usteak, ametsak, beroaldiak... pozura! Erdira edo utsera sarritan. Udabarriko loreak orbel biurtzen diranez; ondoren fruturik ez badator, egoaizeak ara-ona darabilen orbela, besterik ez. Eta lore politak begiak bakarrik betetzen ditu, baina bizitza ez. Gure bizitzako ustez eta amets-lorez, zenbat zakar-ontzi bete ete leitekez! Zer deritxazu?
- Amets egitea, lore politak gogoko izatea, berezkoa eta legezkoa da: gizaki ondo eginaren ezaugarri. Jakina, bizitzan ikusiak ikusita, erlearen antzera jokatzeko ikasten dabe askok: lorez lore ibili, baina lorearen barruko zukua jaso eta burrun-burrin ontzira, ezti gozo eiotea. Lorea an geratzen da; ez da alperrekoa, ez dago utsik. Baina badauka dotoretasuna baino geiago balio dauan zerbait. *Zerbait* orren bila ibiltzen ikastea da "jakituria". Zuri zer dinotsu bizitzako esperientziak? Zer deritxazu?

**"Txarriak jaten ebezan ezkurrez  
sabela bete gura izaten eban,  
baina inork ez eutsan emoten"**

(Lk 15, 16...).

- \* Jesus gure Jaunak baekian bai bizitzaren barri. "*Seme galduaren*" parabolako pasadisua erakusgarri bikaina benetan! Gaztearen ametsak, usteak, entzundako kontu gozoak... Aitaren diru eder ugaria poltzikoan... A egoan mutila! Egaz doa txoria lez baina, nora? Urrun; etxean dana da lokarri, traba eta galga, dana eguneroko lan eta izerdia, eroan ezinezko buztarria. An urrun, *zenbat eta urrunago obeto*, amets-leku artean dana da askatasuna, jai eta jolasa, atsegin betea. Emen zoritxarra, an zoriona... Olakorik ikusi dozu bizitzan? Eta zer deritxazu?
- \* Gizakiak irakatsirik beteenak bizitzatik bertatik jasoten ditu, ez liburuetatik. Batez ere, baztarrak jota gero, premina gorrian dagoanean. Baztarrak jo barik ez dago, antza, ezer onik ikasterik. Gogorra, baina egia. "*Unibertsitatean ikasi, baina eguneroko bizitzak erakutsi*" esan oi da. Jesus Maisuak gure gaztea txarri arteraino jausita erakusten deusku: narruari eskatuala emon eta osasuna maxkaldu; lagunartean jipi eta japa ibili eta sakela zimeldu... Txarrien ezkurak jan nai eta txarriak itzi ez. Ondarrean zeatz jota. Leenagoko txori politak orain *txarri* biurtuta. Pozak pozura... baina pozakaz batera norbera. Benetan pozu baltza auxe, ezta? Bein onenbestera jausi ezker, ba ete dago jagiterik? Bizitzako ezbeurrak, danak ete dira kalterako? Zer deritxazu?

35

**I AUNDI ETA NI AUNDI,  
NORK ESANGO GURE ASTOARI:  
“ARRI”**



- Nor baino nor aundiago, gogorrago: betiko jokaera gaiztoa gizartean. Makina bat negar-malko ixuri azotakoa! Zerbait dala-koan, gangarra goian eta tente beti. Makurtu baino leen dana erre eta kix-kaldu. Aintxinako esaerea beteaz: “Geu nagusi, bestelan musturrak ausi”. Eta modu eta bide asko dago, besteak baino aundiago agertzeko; batzuk agirikoak, beste batzuk ezbaikoak. Batzuk lepotik beera, besteak saiespetik gora; adar edo ostiko, baina emon! Onerako bear gendukezan indarrak, kalte egiteko... Zergaitik ete aundi-gura au? Zer deritxazu?
- Okerrena au da: norbera aundi agertzeko, besteen lepo-gainera igon bear; inoren kontura, gora. Zenbat eta geiago zapaldu, norbera gorago. Euskaldunen artean joko eta apustu-grina ere aundia da. Besaka edo botaka, baina norbera-nagaz aurrera, danen kontra. Kaleko jau-padak, etxeko negarrak oi dakarrez. Zeuk zer deritxazu?


**“Ze eztabaida zenkarren  
bidean? [...] Areik, ostera, isilik;  
aundiena nor zan, ori izan zan  
euren arteko eztabaida. [...] Inork leenengo izan nai badau,  
izan bedi danetan azken eta  
guztien zerbitzari”**

(Mk 9, 33-35).

\* Jesusen eskola-mutilok oraindino asibarritan aurkitzen ziran. I aundi, baina ni aundiago... Eztabaida, garraztasuna. Jaunaren aurrean lotsagarria; gizonen aurrean, barriz, mingarri eta kaltegarria. Jesusek ere, aundiena eta leenena izateko bidea erakusten deusku: eztabaidakoa gorantza da; alkar zerbitzekoa, beerantza. Jesus Bera dogu maisurik onena: gugana beerantza etorriaz, agertu deusku bere benetako aunditasuna. Jesusi begira, zer ete da leenengo eta azkenengo izatea? Zer deritxazu?

\* Berezko eta legezko grina dogu "aundiena izan naia". Jaunak ez deusku grina ori kentzen, zuzentzen baino. Ea nork geiago egingo beartsu eta gaixoen alde; nork emongo Jesusen alde testigantza ohea; nork zintzoago jardun zuzentasunaren eta bakearen alde... Kristau-bizitza ez da inor zapaltzeko, inor salbatzeko baino. Ez da aundi-maundien antzera bizitzea, Espirituaren esanera baino. Onelako batek ez dauko astirik alperrik galtzeko. Zertan jarduten dau olako batek? Zer deritxazu?

## IZENAK AUNDI, IZANAK TXIKI

A black and white illustration of a scroll with text. The scroll is unrolled from the top right. At the bottom right, there is a quill pen in an inkwell and a small circular object, possibly a seal or a coin.

*Jesus Maisua, Zuk esana da:  
"Zuek zaree anaiak",  
danok etxeko egiten gaitu  
zure Erreinuko maaiak,  
Alkarrengana zabaldu gaizuz  
gozatu gure erraiak;  
alkarrentzako izan daitezcan  
Zuk emondako doaiak,*

• **IZENA:** Aintxinako gizaldietan, bateatze-rakoan, edo Jainkoaren izenean eginkizun berezi bat artzerakoan, ari egokiozan izen eta deitura bereziak ezarten jakozan umeari; bere aurrekoen edo erriaren edo jaiokeraren eta betebearraren erakusgarri: Abraan, Moises, Jesus, Pedro... Baina emen aitatzen dogun *izena* beste kontu bat da. Kargu edo *kategoritik* datorren izen aundia, lurruntsua: Txit agurgarria, Jaun gorena, Aita Santua... Eta izen aundia artu ezker, norbera ere apartekoa dalakoan. Zergaitik onenbeste alegin, titulu edo izen aundi baten atzetik? Geienetan, tituluaren agatik *odoleste eta lukainka* gozoak egon oi diralako. Olakorik ikusten dozu? Zer deritxazu?

• **IZANA:** Au beste porru-jenero bat dozu. Emen bai aldrebestuten dirala mundu bi: *tituluak* goian eta *tutuluak* beean... Gernikako azokan lez: Kortezubiko piperrak dirala esan, eta *Andik Onakoak* ekarri eta izotzgailuetan gordeta luzaroan eukitakoak izan. Eta zer? Titulua, izena ere ordaindu bear da eta! Gizon-emakume "*aundiak*" ikusi ditugu sarritan lurrean tatarrez; baita *don* eta *doina* bakoak gizatasun gorengo mailetan dizdiz ere. Saltsa-maltsa onen barririk badozu? Ez ete obe norbere ankatxoakaz tipitapa ibiltea, inork prestatu-egoakaz egaz ibili baino? Zer deritxazu?

**“Zuek inori ez itzi «rabi» (maisua) esaten; bat bakarra da zuen maisua zuek danok anaiak zaree eta. [...] Ai, zuek lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Ilobi zurituen antzeko zaree: kanpotik itxura ederrekoak dira, baina barrutik il-azurrez eta ustelkeriz beteak. Bardin zuek: azaletik zintzoak jendaurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak” (Mt 23, 8.27-28).**

\* Jesusek ezin izan eban bat egin fariseuek: itxurazale utsak, txalo-bila eta izen aundien egarriz ebiltzan. Eta ori lege-maisu izanik. Astinaldirik emon eutson, ba, Jesusek, azal utsezko erlijinozaleoi! Gatx egiten jaken besteen mailara jastea. Guzur-eskailera orretan gorengo otaraino igonda egozan. Jesus bizi barria ekartera etorri zan, ez moda barri bat; eta bizi barria ez da sortzen azalean, barru sakonean baino. **“Egizue erakusten dabena, baina ez egiten dabena: esan bai eta egin ez egiten dabe.”** Zergaitik artu ete eutsan orrenbesteko amorrua Jesusek erlijinokera orri? Zer deritxazu?

\* Orduko titulu eta deitura eder guztiekaz jabetu ziran: *maisua, aita, gidari, santu...* Deitzea da bat, eta orren bila ibili eta adurra dariola onartzea, beste bat. Jakina, izen aundi ederrak ez egozan utsik; ondoren gozoak ekarrezan: ontzat errespetatuak izatea, buru-makurketak, euren eritzia Jainkoaren berbatzat artzea, eurekandik etorren guztia ontzat emotea, beste barik, onaren eta txarraren epaile agertzea... Guk, geure gaurkora etorrita, ikusten dogu olakorik? Zer deritxazu?

## JAINKOA, BAT ETA BERA NAIKOA



- Gizonak badau egarri bat, inoren *jainko* izateko! Onetarako era eta bide asko dagoz. Dana dala, agindu, danak menpe euki, danen txaloak jaso, al danik eta geien auzpez gurtzen euki. Ez deutso ardura gogoz ala gogoz-kontra; kontua da, *auzpez*, makurtuta. Badira naiko errez auzpeztuten diranak beste *sasijainkotxo*en aurrean: bateko euren bildurrez, besteko eurakandik zerbait espero dabelako... Lurruna eskeindu bear, zerbait lortuko bada. Izan ere, olako jainkotxoak ate askotako giltzak euki oi dabez, eta sarreran *morroi leial* batzuk izaten dabez. Olakoetan erreza al da tente jarraitzea? Zer deritxazu?
- Baina sasijainkotxoak ez dira danak *kanpoan* egoten; kaltegarriagoak dira, sarritan, norbere barruan ondo gordeta dagozanak. Eta ondo zainduta gainera! Zer diran? Ara, *ondasunak*, *ideiak*, *lagunak*, *politika alderdiak*... zerbait edo norbait gure burua eta biotza lapurtzen deuskuenak, eta nai daben erara erabilten gaituanak. *Norberak egindako jainkotxoa*: norberak nai dauen erara darabilela uste dau, baina gidatzen eta motibatzen dauana barruko jainkotxoa bera da. Zeintzuk izan daitekez *gaur* gizonaren jainko izatera eltzen diranak? Zer deritxazu?

**“Eure Jaungoiko Jauna bakarrik gurtuko dok”**

(Mt 4, 10).

- \* Kontua ori da: aurrean *belaunikotu* eta gurtu, jainkotzat artu, jaun eta jabetzat. Jesusek ez dau inor, ez ezer, Jainko-ordezkoztzat artzen. *“Bat bakarra da Jainkoa.”* Gizonaren gainetik eta barrutik dagoana, kanpotik laguntzen eta barrutik betetzen dauana; *gizona bera gizonago* egiten dauana, eta bere ordezko lez munduko arazoetan jokatzera bultzatzen dauana. Gizonari traba ez, baina askatasuna eta indarra eskeintzen deutsona. Ori bai dala egiazko Jaungoikoa! Orrek bakarrik betetzen dau gizona. Zer deritxazu?
- \* Jesus ez dabil olgetan, *erdi bat batari eta beste erdi bat besteari*. Zirt edo zart: goitik beera ebagi eta erabagi. *Ez ordezkorik, ez erdizkorik*. Ez da samurtzen, ez da biguntzen inoren aurrean: ez senideen aurrean, ez adiskideen aurrean. *Eskeintzak, eskupekoak, txaloak*, danetarik izan ebazan; baina ez eutsen belau-na makurtuazo. Ori da gizon izatea! Zer deritxazu?



## KALTEAK IDATZI AUTSETAN, MESEDEAK ARRIETAN




- “—Zu bai zareala eder galanta!  
— Ori, nire amaren meritua da, ez nirea.”  
Baina erreza da amagaz aztutea eta norbera arrotzea. Kontuak atera: bestee-kandik artu doguna kenduko baleuskue, ea zegaz geratuko ginaken? Baina eskerrak nori emon? Eta emon bearrik bai? Gaur ez dago giro egokia inori eskerrak emoteko. Kontuak eskatzeko bai, baina eskerrak? Ba al dozu zergaitik eskerrak emon? Zertan? Zer deritxazu?
- “*Kalte egin*”: nik ez beintzat! Obeto esanda: Nork ez egin kalte inori? *Naita edo naiezta*. Baina gizarteko kontu asko ez dira kaltetzat artzen: “*Eurak ere egiten dabe eta...*”, “*Emen gogor egiten ez badozu, zapaldu egiten zaitue eta...*” Gainera, taldean, edo politika-alderdi baten barruan egiten dan guztia ondo dago, beste barik. Inork ez dauka ezeren errurik... Egin kontu: 99 mesede artzen ditugula eta kalte antzeko bat. Zer gertzen jaku gogoan? Zer egiten dogu geienetan: eskerrak emon, ala kontuak eskatu? Zer deritxazu?

**“Eskumako matrailan jo  
zagizanari eskeindu egiozu  
bestea ere”  
(Mt 5, 39).**

\* Matrailekoak artzen eta batzen joan bear ete dogu, ba? *Tentelarena* egitea dala dirudi. Baina on egitearren, matrailekoa naiz eperdikoa artzen dozula, zer orduan? Ez urten bidetik, ez itzi zuzen jokatzeari. Ekin aurrera gogo onez. Ekin, naizta beste matraileko bat artzeko arriskuan egon. Au *tentelarena* ala *zintzoarena* egitea ete da? Zer deritxazu?

\* Jesusen jokabide au benetan gogorra da guretzat. Orduan ere askok atzera egin ei eben. Ez da arritzekoa. Bai gaur ere, benetan artuko bagendu... Olako orduetan bearrezko jaku kurutzera begiratzea. Beste edozetan baino geiago, emen dogu Jesus maisu aundi. Batez ere au, gaurko egunean eta gure artean, gatx egiten jaku, nire ustez. Inguruan dana gorroto, bengantza, nork baino nork berba garratzagoak besteen aurka eraso-tea... Sastraka onetan bizi gareala gogoratuta, zer egin? Zertan daukagu aldatu bearra? Zer deritxazu?

## KURUTZBIDEA, BIDEKURUTZEA



- Gitxi asko, gure munduko bizitza kurutzbide luze bat da. Zenbat jausi-jagi, atzera-aurrera, argi-ilun, gazi-geza bidean! Unekada batzuetan kurutzea ere astunago, bidea latzago egiten jaku. Orduan bai errez urtetzen dala norbere bide onetik?

*Bidekurutzea:* "Obea zalakoan, neukana galdu neuan". Aldatzgora gitxiago egongo zalakoan. "*On bila, on bila, bonbila.*" Izan dira, ba, guk baino kurutze astunagoak eroan dabezanak, eta bape barrutik arrakalau barik bizi eta jokatu dabena. Olako bidekurutzetan onerako zein okerrerako aukera bat egiten da. Ezagutzen dozu olakorik? Eta zer deritxazu?

- *Buztarrira* ekandu den idiak bai tiratu! Buztarrira ekandu ezik, beti *botaka edo besaka*, eta buztarrria dan baino astunago eta mingarriago egiten jake. Ez da gero lurra jo arte tente irautea, ez da *sufritzearren sufritzea* beste barik. Bizitzeari emon leikena baino ez eskatu; alperreko ametsak itzi eta eguneroko eginberrari, kurutzeari, oratu. Eta ez egon auzokoari begira, arek kurutze arinagoa daukalakoan edo; zuk zeureaz naiko dozu. Zer deritxazu?


**"Nire buztarrria biguna da  
eta nire zama arina"**

(Mt 11, 30).

- \* Egia ete da? *Buztarrria bigundu, zama arindu?* Zelan? Txikiago bategaz trukatuz, ala barrutik geuri indar geiago emonaz? Olan ere buztarrria eta zama arindu leitekez. Izan ere, benetako fededunak ileta gitxiago jotzen dabe bizitzako kurutzbidean, fedebakoak baino. Gogora ekarri daiguzan batzuk. *Jesusen ondoan eta atzetik, kurutzea arindu edo norbera sendotu?* Zer deritxazu?
- \* "Etorri Neugana." Jesusen irudia sarritan gogora ekarri bear, otoitzean gogor ekin bear, Ebanjelioko eskolara gogotsu urreratu bear... Ori da Jesusegana urreratzea: bere indarrez betetzeko bideak. Or dira kristau talde txikiak eta biziak, Jesusengana urreratzeko gaurko aukerak. Santuak bai kurutze astunak eroan Jesusen izenean! Eta guk zer? Zeure inguruan ezagun dozu eta ezagutzen dozu kurutzepean gogo argiz bizi danik? Gure kristau sinismenak ba ete dau indarrik kurutzbiderako? Zer deritxazu?

40

## LOTSABAKOENTZAT MUNDUA, IRABAZTEN DABENENTZAT ZERUA

A black and white illustration of a scroll with text written in a cursive script. The scroll is unrolled from the top right. At the bottom right of the scroll, there is a quill pen resting in a small inkwell, with a circular object, possibly a seal or a coin, next to it.

Zuretzat egi diran geienak  
munduarentzat guzurak,  
egi-itxuraz guzur galantak  
salduten deuskuz maltzurak,  
Zorionezko apainkeritan  
gorderik asmo makurak,  
Jauna, Zuk argi esan deuskuzu  
izan gaitezala zurrak,  
ez aztuteko egi-bideak  
ez dirala inoiz samurrak.

- *Lotsabakoa* eta *lotsagaldukoa* ez dira gauza bat eta bera. Bere nortasuna edozein lekutan agertu eta egin bear dauana, danen gainetik, egiten dauana "*lotsabakoa*" da. Ez dauka lotsarik nor eta zer dan agertzeko. Ez dau aurpegia ezkutatzen. Ez dago ingurukoen esamesei begira. Dana dala, "*lotsabakoentzat*" da mundua. Jesusek zelango jarraitzaileak bear ditu: *lotsatiak* ala *lotsabakoak*? Zer deritxazu?
- "*Lotsagaldukoa*", oster, nire ustez, txaragoa da. Txarrez lotsa ona eta begirunea galdu egin dau, eta idi-pareak teiltuan baino kalte geiago egiten diardu baztarretan. Lotsea galtzea, gizonaren barruko bolantea galtzea lez da: orduan gizona, bolantea aldrebestu jakon *kotxea* lez, bere buruari eta beste askori kalte aundiak egiteko zorian jarten da. Eta eginalak eginda gero ere, zintzoen lepotik barre egin! Gaur gure artean zelangoak bear ditugu geiago: *lotsabakoak* ala *lotsagaldukoak*? Zer deritxazu?

**"Mundu onetako semeak, euren  
artuemonetan, argiaren semeak  
baino maltzurragoak dira"**

(Lk 16, 8).

\* Jesusen esperientzia argi eta garbi agertzen da emen: *munduko arazoetan*. Diru-kontu, politika, kirolak eta abarretan... zenbat ardura, joko, malizi, konponketa, alegin! Eta gu, kristau jendea, geure kristau ardura eta eginbearretan zer? Zeuk zelan ikusten dozuz zeure ingurukoak? Jesusek esandakoagaz bat zatoz? Zer deritxazu?

\* **“Argiaren semeak”**, geu kristauok esan nai dau: Jesusengan sinisten dogunok, sarri mezatara goazenok. Jesusek ere mundua irabazi gura dau Aitarentzat. “Irabazi”: onera ekarri, bakez eta pozez bete, danen artean solidaritza geiago ezarri, gaixo eta beartsuen alde ekintza geiago aurrera eroan. Eta non dira bere lagunak? Orduan beintzat loguraz geienak; eta gaur emen? Ganora geiago ipini ezik, irabazi ete geinke Jesusen bidetik mundua? Eta zer egin guk gaur emen? Zertan joten gaitu geien lotsa gaiztoak? Zer deritxazu?

## MARIA GURIA GORUETAN, BEAR EZ DAN ORDUETAN



- Izan ere, oso gitxi dira gauza bakoitza bere orduan egiten dabena. Egunez lo eta gauez uju. Ori mozoloak eta... ondo. Astegunez ainbeste asti libre eta igandetan jo eta ke lanean. Eta zenbat eta zenbat holako! Eta orduz kanpo ibilita, luzarora onik bai? Ze on edo kalte etorri leike? *“Ez daukat astirik”* dinogunean, zer esan nai dogu? Benetan da? Zer deritxazu?
- Gizonak gizon izateko, ainbat aldetara jo bear dau, bere buruari zor deutsonez bizitzeko. Ezkondu naiz ezkongai, eleizgizon naiz erri gizon izan, izate bakoitzak bere erantzuna eskatzen dau. Eta ez dago ondo bat edo beste albora iztea, astirik ez daukala eta, beste arlo bati geiago emotearren. Bestela laster da aiena edo oiena. Zergaitik, bestelan, ainbeste *botaka eta besaka* baztarretan? Zeugan eta inguruan ikusten dozunetik, zer deritxazu?

**“Marta, Marta, arduraz eta urduri diarduzu gauza askotan; eta gitxi dira bearrezkoak; edo obeto esateko, bat bakarra”**

(Lk 10, 41).

- \* Marta jo eta ke lanean sukaldean, Jesus etorri zala eta, afari gozoa prestatzen. Zeregin egokia benetan! Eta bitartean bere aiztea Jesusen oinetan, Berari entzuten eta barrua argitzen eta berotzen. Martak ez dauka astirik orretarako eta gainera ori denpora alperrik galtzea dalakoan dago. Eztropezuka eta umore txarrez, arnas-estuka dabil batera eta bestera. Bere ustez, afaria prestatzea zan eginbear nagusia. Jesusek ezetz dinotso. Zuk zeuk zer egiten dozu olakoetan? Zeinen alde zagoz? Zer deritxazu?
- \* Otoitz egitea, kristau batzarretan parte artzea, bi edo iru eguneko erretiruak egitea eta abar, *denpora galtzea* ei da. Esaten ez bada ere, egin orrela egiten da sarritan. Lan egin, irabazi eta irunsi ezik, besterik ez da *baleko* munduan. Orduan eta gaur bearrezkoena dana egiteko, asti barik, leen eta gaur. Ala ez? Zer deritxazu?

## MENDIAK EZ DAU MENDIA BEAR, BAINA GIZONAK BAI GIZONA



- Arri bat bakarra, eder eta aundiena izanda ere, ez da naiko jauregi ikusgarri bat jasoteko; pago tantairik galantena ere ez da naiko, bera bakarrik, pagadia egiteko. Alkar bear. Gizonak ere gizona bear: gizaki lez azi, bizitzeko; familia sortzeko, erria osotzeko, lantegia aurrera eroateko. Eta zertarako ez? Zer deritxazu?
- Sarri askotan gitxien gauza dirudienak eurak dira bearrezkoenak: etxean, eleizan, auzoan... Gizonak gizon izateko, maitasunezko artuemonean bizi bear dau, maitasunak alkartasuna sortzen dau. Dana dala, alkar bear; alkar barik, ezin izan, ezin bizi, ezin egin. Alkarren premina dogula jakiteak, zer eskatzen deusku? Zer deritxazu?

**“Osatu egizuez gaixoak, biztu  
ilak, garbitu lepradunak, uxatu  
deabruak; utsean artu dozue,  
emon utsean”**

(Mt 10, 8).

\* *"Jesusek bialdu ebazan"*: bialduaren kontzientzia bear da, danen gainetik. Orduan da bat *apala baizen zabala*. Jesusen ustez, ez diardu bere gogoz eta eraz lanean, bialdu dauanaren aginduz eta maitasunez baino. Bialdua *misinoe-tara*: familiara, ikastolara, lantegira; bakoitza bere arlora. Orduan bai, eta orduan bakarrik, bata besteagandik artu eta emon egiten da. Garean eta ditugun gauzarik ederrenak inork emonak doguz, ez erosiak, eta ez geuk geutara eskuratuak. Egin kontu inogandik artu doguna kenduko baleuskue... Zer deritxazu?

\* *Osatu, biztu, garbitu, gatxak uxatu...* Au jakinik eta au olan izanik, gizonak gizona bear dau, duda barik: nor ez da gaixotzen, zikintzen, okertzen, makaltzen? Ba ete da inor beti alai, beti ondo, beti sendo dagoanik? Eta bere kabuz eta inoren laguntza barik bere senera biur-tzen danik? Olan dala, danok alkarren-gana bialduak. ***"Utsean artu dozue, emon utsean."*** Ai, au sinistu eta beteko bagendu! Zer deritxazu?

## NAGIA BETI LANTSU





• Nagia beti “*nagiak ateraten*”. Lanean erabili bear leukezan indarra eta denporea alperrik aizetara botaten. Jakina, bere indarrak ao zabaletik doakioz, eta ez eskuetatik. Beti denporeari begira eta gero denporarik ez lanerako. Langilea beti dabil nondik eta zelan lan obeto eta geiago egingo; nagia, nondik eta zelan lanari iges egingo. Pertsona, berez, nagia ala langilea ete da? Eta bat edo beste izan, zer alde dago norberagan eta besteengan? Zer deritxazu?

• *Beti lantsu*. Obeto esanda: lanez beterik eta lan-gogoz utsik... Berak nai leukezan amets eta gogoak (jan, edan, egon, jai eta kirolak...) ezin bete, beretzako lain denporarik ez... eta ortik eguneroko lan-katean lotuta alpertu, errez nekatu. Egoten ere nekatu! Olakoa, geienbaten, inoren lepotik bizi da, etxekotik edo auzokotik, baina beti inoren lepotik. Nagiak eskubide asko eta ankabide gitxi... Beti zer artuko, gitxitan zer emongo. Joan adi orrengana auzolanerako deika! Masustondora makatz bila? Mesede baten eske norengana urreratuko zinake: lanaren lanez dabilenaren ondora, ala egonaren egonez dagoanaren ondora? Zer deritxazu?


**“Areetatik bost zentzunbakoak ziran eta beste bost zentzundunak. Kruseluak artzean, zentzunbakoak ez eben oriorik artu; zentzundunak, ostera, kruseluekaz batera, orioa ere artu eben ontzietan. [...]**  
— **Jauna, Jauna, zabaldu eiguzu atea! [...]**  
— **Benetan dinotsuet, ez dakit nor zareen”**

(Mt 25, 2-4; 11-12).

\* Jesusen parabolan *zentzuna* erabilten da oinarri lez. **“Bost zentzunbakoak ziran eta beste bost zentzundunak.”** Zer egin bear dan jakinaren gainean egon, eta orretarako bear diran bide eta aukerak ez edo bai artu... Kontu zorrotza emon bear dauala argi euki, eta ez nora ez ara bizi... Ikasle nagia antzera: sasieskola asko egin ondoren, zer azkenean? “*Kalabazak*”, eta txarrena, gero *rebalidarik* ez! Benetan au zentzunbakokeri mortala da, gero! **“Ez dakit nor zareen”**: luzaroan alkarren barri jakin barik, antza. Ez dozu artzen emen *Oliadura Santuko* orioaren usainik? Bizitzan zear ontzian orio barik ibilita gero, azken orduko orioak zer? Aurretik orio eta guzti ibili danari bai mesede eta poza! Zer deritxazu?

\* **"Kruseluekaz batera, orioa ere artu eben."** Esatea ere! Zertarako da, izan ere, kruselua utsik? Dotore-itxurak egiteko? Bardintsu ez ete da: *burua bai eta zentzunik ez?* Bestelakoa da *orioduna*: kon-tuak zeatz atera eta nora eldu nai dan, atarako bearrezko diran laguntzak eta bideak aukeratu eta eskuratu. Jakina, ola-koetan izaten da nork barre egin *oriodunen* lepotik, kaxkajotzat joaz. Baina azkenenan ikusten da nork nori laguntza eskatzen deutson; nor izan dan zentzunduna, nor dan txalogarria. Baina, izan, zer da *oriodun* izatea emen? Zer deritxazu?

## NIREA NEURE, ZUREA GEURE

A black and white illustration of a scroll with text. The scroll is unrolled from the top right. At the bottom right, there is a quill pen in an inkwell, with a small circular object next to it.

Zeruko Aita, ondo dakizu  
gure jokaera zaarra:  
ona geuretzat gura dogu ta  
besteentzat bego txarra.  
Biztu eiguzu gure barruan  
maitasunezko sugarra,  
eta orduan sortuko jaku  
alkarbanatu bearra.

- Ori bai morroia! Bitik, bat eta erdi esku-ratu nai. Askoren *erdiak* beragandu nai. Besteak lana, norberak jana. Bide laburra benetan! Eta laster ez janik, ez lanik. Norberekoi izateak dakarren gatxa: lagunak galdu, eta zorionik eskuratu ez. Baleiteke ondasunak eskuratzea, baina orrelakoak ingurua latza eta garratza izaten dabe. Azken baten zer erein, axe batu. Zer deritxazu?
- “*Nirea neuretzat eta zurea biontzat.*” Bardintsu, ezta? Eta onean ez bada, txarrean, gogorrean. Zergaitik? Aintzinakoa-rena: “*Leoia nazalako*”. Txikiak koilarka-dea daroan bitartean, aundiak lapikokadea, eta gero eta aundiagoa. Baina inorenetik kendutakoaz poltzea bai gizendu, baina gizona bai gizondu? Ala eta guztiz ere, bada baztarretan esperientzi naikoa. Zer deritxazu?

**“Bere burua aurkitzen dauanak  
galdu egingo dau; eta galtzen  
dauanak, aurkitu”**

(Mt 10, 39).

- \* Ispiluan, familian, lagunartean, beti leenengo lekuan norbere burua; gauza gozoen zatirik onena norberarentzat, eta neketsuetan, inorentzat. Eta irabazitan *lautik iru*. Baina, Jesusen ustez, ori “*burua galtzea*”, gizatasuna murriztea, gizaki ziztrina izatea. Zer ba? Ondasunetan gorago eta ontasunean beerago? Zer deritxazu?
- \* **“Burua galdu.”** Burua = denporea, izena, bizia, osasuna, ondasunak... alkarbanatu, besteen onerako ipini. Baina doan, maitasunez, onguraz. Jakina, orduan da bat *burujabe*, norbere buruagaz eta ondasunekaz bear dauana egiteko gauza dana. Orrelakoak ortxe aurkitzen dau bere buruaren aunditasuna. Ori bai dala benetako aunditasuna, aberastasuna! Zorionekoa maitasun-indarrak eraginda dabilena! Ezagutzen dozuz orrelakoak? Eta geuk zer geiago egin geinke, geure burua gordetako, landuteko, salbetako? Zer deritxazu?

45

## NUN DAN NIRE GOGOA, AN DA NIRE ZANGOA



- Barruko gogoa, biotza da gizakia darabilen motorra. Nai izatea, al izatea. Buruak ala biotzak, zeinek agintzen dau gugan? Zenbat urte eta zenbat alegin, buruak argitzeko liburuz, eta biotza landu eta sendotzen zer, zenbat? Ona nor da: geien eta ondoen dakiana, ala gauzak ondoen egiten dituana? *Jakiteak* ala *nai izateak* daroa gizakia bere atzetik? Zer deritxazu?
- Gogorik ez dagoanean, dana da atxakia eta burua zuritu bearra. Zenbat baldintza eskatzen diran, norbere gogoko ez dan ekintza baterako baietza emon aurretik. Eta gogoko danean, beti prest. Bada esaera bat dinoana: *“Ez noa eleizara, nagoalako erren; baina bai tabernara, erren egon arren”*. Gogoak erren mota guztiak zuzentzen ditu, garratz guztiak gozatu. Bizitzeak erakutsi deutsunez, gauzarik onenak *aldatzgoran*, ala *aldatzbeeran* egon oi dira? Zergaitik? Zer deritxazu?


**“Bai dala benetan gatx,  
ondasunak daukezanak  
Jaungoikoaren Erreinuan  
sartzea!”**

(Lk 18, 24).

\* Legearen maitasunez bizi zan *Ebanjelioko gaztea*: lege danak eta umetatik bete izan ebazan. Baina *maitasun-legetik* urrun egoan. Eta maitasunik ez badago, zertarako dira beste lege guztiak? Bere biotza aberastasunez beterik eukan, eta bera konturatu ez. Eta, jakina, lege aldetik, ona zalakoan egoan; baina Jesusen deiaren aurrean ezin itzi eta joan. Dirua edo beste irabaziren bat dagoan lekuan, bai jendea ugari! Eta lanik gogorrenak ere pozik leporatzen dira. Irabazi barik ere, atsegin jakuzan gauzetan, amar gurago, bi baino. Zergaitik ete da? Zer deritxazu?

\* *Jaungoikoaren Erreinuko atea benetan estua da*. Egia, justizia, askatasuna, anaitasuna, alkar laguntzea... Ez ete da au ate estuegia, lepoan txorta aundiak artuta, barrura sartu al izateko? Leenagoko mixinoetan estuegia jarten ei zan zeruko atea; eta orain zelan? Ez balego lez bizi danarentzat, ateak, *estu naiz zabalak*, sobra dagoz. *Unamuno* aundiak azken orduan Jaunari otoi au egiten ei eutson: "*Jauna, zeruko atea estua da, umeentzat egina, eta ni aundi egin naz. Bitatik bat: edo neu txiki naizu, edo ate ori aundiagotu egizu.*" Bietatik zer da egin bearrekoa? Zergaitik? Eta zer da *txikiago* egitea? Erreza al da? Zer deritxazu?

## OBE DA GITXI ASKO, ASKO GITXI BAINO




- Gauza arrigarriak egitea pertsona gitxiren esku dago. Gainera, burua erakutsiz eta arrokeriz ibilteko arriskua dago. Baina eguneroko zeregintxoetan alai eta zintzo jokatzeara, ez ete arrigarriago? Gitxik asko egin ezkerro, gorantzak eta txaloak eskeindu bear. Askok gitxi eginda, guztiak pozik eta bardin antzera. Guztiak *egile eta ongile*, inortxo ere ez begira, inortxo ere ez sobra, alperrik. *Askok gitxi ala gitxik asko egitea*, zer da obe? Zergaitik? Zer deritxazu?
- “*Ez dago nire esku olako gauza aundiak egitea*” esanda, sarritan libre sentitzen gara, al dogun apurtxoa egin barik itziaz. Orren ondorena: “*Egin dagiela besteak*”. *Txinurri* askok elefantea bera ere larri erabili! Zuk eta nik al doguna egitea, orixe da mundua salbatzeko bide bakarra. Ez jaku geiago eskatzen. Guk, *emen batu gareanok*, al doguna egingo bagendu, zer aldatu leiteke gure etxean, auzoan, zaarren eta beartsuen artean? Zer deritxazu?

**“Eta leenengo diran asko  
azken izango dira;  
eta azkenak leenen”**

(Mk 10, 31).

- \* Agiri danez, munduko *aundi asko*, txiki dira Jaunaren aurrean, eta *txiki asko*, aundi. Jainkoak bakarrik neurtzen dau gu bakoitzaren gogo eta alegina. Noizean beingo “*gauza santuak*” ala eguneroko gauza danak gero eta maitasun eta zeaztasun geiagorik egitea, zer obe? Santu izatea ez al dago guztion esku? Nork ezin leikez egin *gitxi asko* egunean zear, Jauna aurrean dauala? Au jakiteak, poztu ala arduratu egiten zaitu geiago? Zergaitik? Zer deritxazu?
- \* Egitadeak berak baino zerikusirik geiago dauka, antza, egikereak; egiterakoan ipinten dogun gogo eta asmoak. Olan dala, *efikazia* ez da pertsonen gorenengo balioa, Jaunaren aurrean beintzat: *zenbat irabazi, ainbat balio*... Jesus onen aurka dago. Eta zeu? Zer deritxazu?

## OGI GOGORRARI, AGIN ZORROTZA

A black and white illustration of a scroll with text. The scroll is unrolled from the top right. At the bottom right, there is a quill pen in an inkwell. The text on the scroll is in Basque.

*"Bidean nekez doana  
betor laster Niregana,  
Neuk lagundu ta bixkortuko dot",  
au da Zeuk esana.  
Zatozkit, Jesus laztana,  
ta bedeinka nire lana;  
ziur nago ni, Zuk lagunduta,  
egin al dot dana.*

- *Nekea, atsekabea, kurutzbidea...* aukera ederrak *nor nor dan* neurtu eta ezagutzeko. Sasoi bakoitzean datoz *"sasoiko ogi-kurruxkuak"*. Kurruxkua gogorra, baina gozoa; mamina biguna, baina malmutza. Kurruxkua nai dauanak, mamurtu egin bear dau, probetxugarri izango bada. Pertonearen barruko *"aginak"* (barruko aalmenak) ez ete dira bera baino gogorragoak, bizitzako kurruxkuak eioteko? Eta lokatu ezker, zeintzuk dira errezago konpontzen? Eta zelan konpondu? Zergaitik? Zer deritxazu?
- *Beetik gora, nekez; goitik beera, berez.* Bizitzako bideak bietakoak daukaz, eta ugari euki ere. Eta bietan ondo ibilten dakianak bakarrik egiten dau aurrera. Aldapan gora egitea geienetan neketsua, baina onuratsua izaten da. *Arnasea* artu bear; *atsedenaldi* batzuk egin; eta beti ere gailurrera elduteko poz eta *itxaropenez* jokatu. *Arnasea, atsedentaldi, itxaropena...* zein ipiniko zeunke leenen, bigarren eta irugarren? Zergaitik? Zer deritxazu?

**«Jauna, Jauna» dinostan  
edonor ez da zeruetako  
Erreinuan sartuko;  
zeruko nire Aitaren naia  
egiten dauana baino»**

(Mt 7, 21).

\* *Otoitz eginez eta lanari ekinez, ez dago inor bizi ezinez. Ez aztu gero! Bieri jardunez! Otoitz eta otoitz ekin, eta lanari lepoa emon, orduan ezin leiteke azken onik egon. Lan eta lan jokatu eta ito, laster makinea erre eta kitto! Ez dozu aspaldion zeure inguruan edo barruan barruntau «lapiko errearen» usainik? Zergaitik ete da? Zer deritxazu?*

\* **«Aitaren naia»** sarritan astuna, baina ez gero bete-ezina. Ziur onetan: eroan ezinezko zamarik ez deusku emoten Aitak. Zamaren neurriko indarra ere eskeintzen deusku. *«Aitaren naia»* betetzea bai egiteko ederra! Gainera geure onerako da: bere naia, geu *eldu-elduak egitea*, gizatasun osora eldutea da. Baina zelan ezagutu Aitaren naia? Zer egin orretarako? Zer deritxazu?

## ON EGINAREN PAGUA, ATE OSTEAN PALUA






- Aintxinako esaera zaarra, ezta? Izaerea, zaarragoa. Esker onaren azia urria da; eta azitik landara izatera eltzen dana urriago. On eginak ikustean, zer entzuten da sarri? *“Bai, ori bai, baina...”, “Zer edo zeren bila ibiliko dok”*. Eta zenbat olako lora! Eta sarritan mesede ordez, berbaz edo egitez kalte eginaz erantzun. Zer ikusten dozu zeure inguruan? Zer deritxazu?
- *“Eskerrik asko”* ala *“Ekarrik asko”*? Zer entzuten eta ikusten dozu geiagotan? Eta zenbat bider *garia erein eta oloa jaso*? Ezin sinistu batak besteari ongura utsez egin deusola mesede! *Kredo* au sinistea eta bizitzako egitadetan agertzea bestea baino gaxagoa arenbaten. Beti bere irabaziren baten bila ibiliko dalakoa... Eta izan, esker onekoa izatea, giza-izatearen guna da, biotz onaren ezaugarria, giza-eldutasunaren seinale. Doan egindako onik ezin sinistu, eta ez dagoan lekuan ere asmo txarraren susmoa... Zeuk olan ikusten dozu? Zergaitik ete? Zer deritxazu?

**“Oker berba egin badot,  
esaidazu zertan;  
zuzen egin badot, barriz,  
zergaitik joten nozu?”**

(Jn 18, 23).

- \* **“Zergaitik joten nozu?”** Inguruan egozan agintariei eder egitearren-edo? Baina mesede naiz kalte egin, ez da au gogotan artzen; orain eta emen neu ondo zelan geratu, ori da eragingarri nagusi. Urkoari egin leikion kalte edo minari ez jako begiratzen. Eta jokabide au ontzat emoten da sarri. Zure inguruan ere bai? *Txominbedar au zabal dabil?* Zergaitik ete? Zer deritxazu?
- \* **“Oker berba egin badot, esaidazu zertan.”** *Leenengo deia* belarrondokoa emon eutsanari: sartu zaitez zeure barruan, azertu egizu egin dozuna, zergaitik egin dozun konturatu zaite... *Bigarren deia: “Zuzen egin badot, barriz, zergaitik joten nozu?”* Bear bada, Erramu domekaz Jesusen atzetik *“goraka”* jarraitu eutsanetariko bat zan; egun gitxi barru belarrondokoak emoten... Jesusen deiari zintzo erantzuteko, gogo eta indar asko bear da: belarrondokoak emoteko baino geiago. Norbere zentzunari eta biotzari kontuak eskatu eta gogor egiteko; orretarako kapaz dan gizaki gitxi dago baztarretan. Zergaitik ete da? Zer deritxazu?

## OSASUNA ETA ONDASUNAK, GALDU EZKERO EZAGUNAK

A black and white illustration of a scroll with a quill pen. The scroll is unrolled, showing text. The quill pen is positioned at the bottom right of the scroll, resting on a small circular object. The scroll has a decorative border and a small circular element at the top right corner.

Zer ete da osasuna?  
Non ete da ondasuna?  
Galduz gero ezaguna.  
Emen gabiltza bete ezinez  
gure barruko utsuna;  
dastatu gaurko eguna,  
gaur eskuan daukaguna;  
bestea da askakizuna.

- *Osasuna*: gazte, sasoi betean, egundo gaixotu leitekenik ere ez; ezta atso-aguratuko danik ere. Orduan neurriak laster galtzen dira: jan-edanean, etenbako joan-etorrietan, edo ganora gitxiko jolas eta labankerietan. Bateko etenak, besteko lerrenak, gero datoz okerrenak! Emengo minak, ango gogorik ezak, lorik egin ezinak.

*Ondasunak*: ondasuna eta ontasuna alkar adiskide ete dira? Zeinek agintzen dau geienbaten: *ontasunak ala ondasunak?* Ondasunak erabilten bagaitu, gaur ur-gaineko bitsetan eta biar sastegiko satsetan... Ontasuna bada nagusi, zenbat mesede an-or-emen! Ontasunaren neurriko ondasuna bai ondo! Zer deritxazu?

- *Galdu ezkerro, ezagunak*. Aurretik alperrik izaten dira barruko *bristadak* eta alboko *txistadak*. Geiago al dau poltsako *ziztadak*... Aupa mutilak! Au dok sasoiak! Baina burdinezko tresnak ere ondatu egiten dira eta, zenbat errezago azur-maminezko gareanok! Gitxien uste danean, lapurra etxean eta etxeko jaun eta jabe eginda, eta norbera arma barik. Olatkoetan ze bide artu leiteke? Zer deritxazu?

**“Txarriak jaten eben ezkurrez  
sabela bete nai izaten eban,  
baina inork ez eutsan emoten;  
orduan bere barrurako esaten  
eban: Amaika morroi bada nire  
aitarenean, naiko ogi daukela,  
eta ni emen gosez ilten”**


(Lk 15, 16-17).

\* Auxe da Jesusen aotik entzundako parabolarik ederrena, sakonena. Bai ondotxo ezagutzen dauala gure giza-izatea! Etxe aberatseko seme gaztea, txarri-arteraino jatsita... Zer gura eta axe jan oi ebana, ona emen ezkur-bila eta ezin ase! Etorribako joana laburra da; goitik beerako bide labana, beeko trokaraino doana. Aitaren izerdiz irabazitako txanpon ederrak galdu, eta gainera norbera ondatzeko. Ontasunagaz batera, ondasunak; eta ondasunakaz, osasuna. Bide labana, ezta? Zer deritxazu?

\* **“Orduan bere barrurako esaten eban: Amaika morroi bada nire aitarenean, naiko ogi daukela, eta ni emen gosez ilten. Jagiko naz eta esango deutsot aitari: «Aita, pekatu egin dot».”** “Bere barrurako” esatea ez da gitxi! Baina premina gorrian aurkitu bear bere burua, bere barrura sartzeko. Osasuna eta ondasunak galduta gero, ai ene eta oi ene asko datoz. Jesusen parabolako gazteak etxeratzeko lain gogo eta indar izan eban; zenbat seme-alaba galdu bide baztarretan, ez atzera, ez aurrera. Arek aita ona eukan. Onek asko esan gura dau. Guk nagusiok, ze jarkera artu bear dogu olako gazte edo edozein urrertzen jakunean? Aita onarena egiteko, zer egin geinke? Zer deritxazu?

50

## PATXI OILASKO, OKELA GITXI ETA SALDA ASKO



- Oilasko izateko, naiko dira luma batzuek eta gangar gorri tentea, naizta okela gitxi euki... Amaika olako *Patxi Oilasko!* Zarata asko, izen aundiak, itxura apainak; baina pertsona orren ondoan, kerizpe gitxi, probetxu gitxi. Berba biribilak, potoloak eta promesa aundiak egin, baina ondoren ez da agertzen ezer, edo oso gitxi. Kapela eta korbata, ontzi polita, baina ojalata... Zer deritxazu?
- *Okela gitxi*: probetxu gitxi, sustantzirik ez, zeri kolperik ez. Zenbatu eta zenbatu dozenaka, baina gauza danik banaka. Olakorik asko bizitzako gorabeeratan, baita Jaunaren aurrean ere. Zer deritxazu?

*Salda asko*: saldea, gitxi eta ona. Zer ikusten? Kapela aundiak, papel polit eta usaintsuak, soinu zaratatsuak, baina opari txikiak, arinak. Saldeagaz asi eta saldeagaz amaitu, orrek gizenduko zaitu! Bizitzan salda utsetan ibiltea, a zer gauza tristea! San Pedro ere ez ei zan salda-zalea. Zer deritxazu?


**“Zeruetako Erreinua itsasora  
botaten dan sarearen antzekoa  
da: itsas-bazterrera etorri eta,  
jesarrita, onak otzaratan batu  
eta txarrak jaurti giten dabez”**

(Mt 13, 47-48).

\* Bizitzako itsasoan bakoitzak botaten doguz geure sareak: azalean edo sako-  
nean; era eta neurri guztietakoak, gainera;  
“pelagikoak” ere bai... Eta bizitza osoa  
bera da arrantzurako sasoi. Bakoitzak  
geurea beteten diardugu; eta ez badiar-  
dugu, utsik daroagu ontzia; baina bakoit-  
zak geurea dogu, eta geuk erantzun bear  
dogu. Emen ez dago batak bestearentza-  
korik. Eguzki epela artzen edo itsasoaren  
edertasunari begira egonaz, ez da sarea  
betetzen. Au gogoratzeak, zer gogo  
dakartsu? Zer deritxazu?

\* Bizitzako arrantzu-aldia burutzen da-  
nean, orduan dira kontuak: bakoitzaren  
sarean zer eta zelango jeneroa datorren  
aztertzeko ordua. Itsas-baztarrean, bizitz-  
-ondarrean, kontuak aterateko ordua!  
Arrain dotoreak, beste barik, ez dau  
balio, edo gitxi beintzat. Zetarikoa dan  
eta zenbat pixu daukan. Jaungoikoa bera  
dogu pixu artzailea, nor zenbat eta  
zelangoak dakarzan kontuak ateraten  
dituana. Zeintzuk artuko ete ditu ontzat,  
eta zeintzuk txartzat, gauzeztantzat?  
Zeintzuk baliotsuenak? Zer deritxazu?

## TXAPEL BATEKIN BURU BI ESTALDU EZIN

A black and white illustration of a scroll with text. The scroll is unrolled, showing a piece of parchment with a quill pen resting on it. The quill is in a small inkwell. The scroll is tied with a cord at the top right corner.

*Ondo dakigu, Jauna,  
maite gaituzuna,  
eta Zuk badakizu  
maite zaituguna.  
Uxa gugandik, arren,  
barruko iluna,  
zure argiz beteaz  
biotz ta zentzuna;  
Zugan bilatu daigun  
gure ondasuna.*

- Txapela ondo datorkio euskaldun baten buruari. Baina ez aztu: *txapelik aundienak ere ez dau betetzen buru utsik*. Ezta euskaldun egin ere, beste barik. *Txapela ala burua*, zein da beinago? Txapel bat buru bi estaltzeko? Txandaka bearko, bestelan... Biak estaldu naian, tiraka txapela, bera erdibitu; orduan ez baten-tzat ez bestearentzat. Jainkoa, eta dirua, ezkerra eta eskumea; mundua eta eban-jelioa... danak batera ondo egon gura eta azkenean norbera galdu. Txapela ondo erabiltea ez da erreza, batez ere aizeak gogor jotzen dauanean. *Txapelbako buruak asko dira; eta burubako txapelak?* Geiago ala gitxiago? Zer deritxazu?
- Txapela *erdibana* egitea, edo *txandaka* erabiltea, ez da posible? Txapelaz ori gatxa bada, gizonagaz gatxago. Badira Bilbon *txapeldun* eta Madrilen *bapedun* agertzen diranak. Txapela ere albo bietara erabili leike, eguzkiak nondik jotzen dauan... Txapel bategaz ugazaba bi zerbidu? Batari *baltza* eta besteari *gorria*? Eta gizonak bai *deabrua* eta *Kristo*? Zer deritxazu?

**“Ezin da inor nagusi biren morroi izan; izan ere, bata gorroto izango dau eta bestea maite; edota batari men egingo deutso eta bestea begitan artuko” (Mt 6, 24).**

- \* Ugazaba asko agertzen jakoz gizonari bizitzan zear, bere berbearen eta indarra-ren eske. Berbaz eskeintzarik gozoenak eginaz, gainera. Eta ugazabarik ez dago, morroirik ez badago... Eta zenbat eta morroi geiago, ugazaba geiago eta gogor-ragoak. Morroia beti dago ugazabaren esanera, bere aginduetara, arduraz bere gogoia zelan beteko, bera pozik eukitearren. *Ugazaba* ori bada, zelan ugazaba bi maitatu eta zerbidu era batera? Zer deritxazu?
- \* Jaungoikoari *apur* bat, eta beste *apur bat* jauntxo bateri (dirua, politika, nagusiren bat...) *Apurka apurka*... azkenean norbere burua apurtu. Emotekotan, osorik emon bear Jaunari, osorik ere naiko txiki da eta! Eta zer *Jaunak betiko eta osorik, biotza eta bizitza*, eskatu ezkerok? Zergaitik ez ete da gaur ontzat artzen *“betiko baietz”* bat eskatzea eta emotea: abade edo erlijioso bizitzan, edo ezkontzan, edo...? Zergaitik egiten jaku gaur ain gatx? Zer deritxazu?

## TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN



- Au jokabidea! Ez nora, ez ara; ibili eta ibili. *Joan eta etorri, kapela gorri*. Tximiniko kea norantza, norbera ere arantza. *“Jan arteko ogia eta il arteko bizia”* daukela eta pozik! Norabidebako ibilbideak nora daroa? Bizitzan elburu eder bat eukiteak badau ba indarra! Kordel-mutur guztiak, bata besteari lotuta, eta ari baten batuta eukiteak, edo matasa naastetsu baten eukitea ez da bardin. Zer deritxazu?
- Asko ibili, baina betiko lekuan; urte asko bizi, baina betiko egoeran, ezetan aldatu barik. Nondik nator? Nora noa? Zertan izango da nire azkena? A zelako epelkeriak gaur askorentzat! Zergaitik nekatu? Zergaitik bizia emon? Zergaitik onelako jokabide bat artu eta ez bestelakoa...? Olako txapelaz, zein txapel barik, edozein gizon da *jauna*. Zer deritxazu?


**“Zuetariko batek torre aundi bat egin nai izan ezkeru, ez al dau leenengo, jesarrita, zenbat eralgi bearko dauan ikusten, bere lana amaitzeko naiko daukan ala ez ikusteko? Oinarriak ezarrita gero, ezin amaiturik ikusten daben guztiak barre egin ez daioen, esanaz: «Ona emen etxegintzan asi eta amaitu ezinik gelditu zan gizona»”**

(Lk 14, 28-30).

\* Torre bat baino zerbait ederragoa da *norbere bizitza*. Bein biziko munduan, eta merezi dau *kontuak*, jesarrita, ondo ateratea: Zer nai dot izan? Zelan lortu nai dot ori? Orretarako zenbat emoteko nago prest? Jesusek benetan artzen dau bizitzea. Bidean zear zoazela ere, noizean bein, jesarrita, kontuak ondo atera bearra izaten dira, alperreko biderik ez egiteko: otoitz-egunak, erretiruak, lagunarte zintzoak... Ba al dozu olakoen aukerarik? Zer deritxazu?

\* **"Asi eta amaitu ezin"**: baztarren barre-garri biurtuta. Ezkontza, artutako konpromisoa, emondako berbea... zergaitik ukatu, aldatu, itzi? Eta zer ardura deutso? Beste guztiak ere antzera dabiltz. Amaika *torre, bizi-proiektu*, badira erdieginean itzita! Txarrena, ez laguntzarik, ez kontsejurik, ezin onartu. Neuk artu eta neuk itzi, beste barik, gogaldiak emon deustalako. Olako asko ikusten dozu zure inguruan? Zer deritxazu?

## TXARTO ESANAK PARKATU, ATE OSTEAN SAKATU



*Biotzez, Jauna, dinotsugu gaur:  
"txarto esanak parkatu",  
baina Zuretzat ez da naikoa:  
"ate ostean sakatu".  
Alperrik dira atxakiak ta  
alperrik da au ukatu;  
erruki aundiz parkatu, Jauna,  
eta biotza aldatu,  
eta kaltetu doguzan danak  
esku betez bedeinkatu.*



- *Txarto esanak*: esan bear ez diranak; esan bear ez diran moduan, lekuan edo orduan... Sarritan, ekinaren ekinez, geiagoko barik; edozeri eta edonori ekin. Malizi aundi barik eta zentzun gitxiagoaz. Isilik ez egotearren edo. Eta susmoari leku emoten jakonean? Susmoa egi biurtzen danean, isileko inbidi edo ikusi-ezinakagaz naastean? "*Txarto pentsaizu eta igarri.*" Jakina, zu besteen bizitzan bai, baina beste inor ez daitela sartu zurean, gero! Ez dalakoan ere, kalte aundia egin leike marmarrean, ezta? Zer deritxazu?
- *Ate ostein sakatu*: Obe bai! Gatxerdi, ori egingo balitz. Esanak esan, entzunak entzun, bertan itzi; ez zabaldu, ez erabili, ez naastatu. Bat baino geiago ezagutzen dot, olakoetan itanduten dauana: "*Zeuk ikusi edo entzun dozu ori?*" Eta isildu ezin baditu, jagi eta alde egiten dauana. Ondo dago? Besterik ezer egin leike? Zer deritxazu?

**"Aldarean zure oparia  
eskeintzerakoan, zure senideak  
zure kontra zerbait badauala  
gogoratzen bajatzu, itzi oparia  
bertan, aldare-aurrean, eta zoaz  
leenengo senideagaz bakeak  
egitera; gero, barrero etorri eta  
eskeindu egizu zure oparia"**

(Mt 5, 23-24).

- \* "*Ate ostein sakatu*" baino geiago da: "***Itzi oparia bertan, aldare-aurrean eta zoaz...***" Leenengo alkarregaz adiskidetzear da, eta gero Jainkoagazkoa egin. Eleizako aldarera urreratu baino leen, biotzeko aldarea garbitu eta lorez jantzi bear da. Biotz bakar bat dogu, urkoa maitatzeko eta Jainkoari oparia eskeintzeko. Ezin bat goratu, besteagaz bat-egon ezik. Eleizako ate ostein itzi, eta biotz-barrituta urten bizitzara. Orduan bai ondo alkarlotuta bizitza eta kultoa! Jainkoagaz ezin dogu bakarrean mezatan artuemonik egin; senide tarteko batzarra da. Zer deritxazu?
- \* "***Senideagaz bakeak egitera.***" Ez da odolezko senitarteko, edo adiskideen arteko kontua bakarrik eta batez ere; Kristoren odolez berrerosien arteko arazoa baino. Senidetasuna apurtuta, ezin Aitagana urreratu; senideren bat gugaitik minduta badago, zelan jesarri Aitaren maaian. Bat baino geiago ei dira, eleizan sartu aurretik, noren ondoan jesarriko diran kontuak ateraten dituenak; gero bakea emoterakoan, konpromisorik ez izateko edo. Zer deritxazu?

54

## UMEAREN ZENTZUNA, ETXEAN ENTZUNA



• *Umearen zentzuna:* jaiotzatik giza-landaratxo barria beraganduten doan bizi-zentzuna. Zer dan ona eta txarra; gizakia nondik norakoa dan; alkarre-gazko artuemonak; Jainkoak gugaz daukan zerikusia... Umea giro eta ingurune orretan doa elduten, bai gorputzez eta bai buruz eta gogoz. Eta umearen nortasun-orea ain da biguna, samurra, berez geratzen da markatuta, onerako zein txarrerako. Zeuk zer ikusten dozu arazo onetan? Eta zer deritxazu?

• *Etxean entzuna:* familia da leenengo bizi-iturria, bizi-eskola; berba egiten, ibiltzen, artuemonean bizitzen, otoitz egiten... ortxe asten da azten umea. Etxekoak euskalzaleak, eleizaleak, kirolzaleak badira, an sortu eta azten doan umea ere arnasa orrek ikututa etorriko da; laster igerriko jako. Orrek gauzok ezarri egiten dira. Eta etxeko utsunea ezegaz ere ezin leiteke bete. Eskola, eleiza eta beste, lagungarri izango dira; baina ez ordezeko. *Sasimaisuak* ere badira, bestelakorik erakusten dabenak. Guk zer egin geinke etxean entzunak, umeen zentzuna bete al dagian? Zer deritxazu?


**“Onelako umeren bat neure izenean artu dagianak, Neu artzen nau. Neugan sinisten dauan txikitxo onetariko bati gaiztakeria erakutsi dagionak, obe leuke orrelako orrek astoak darabilen errotarri bat samatik lotuta, itsas-ondarrera jaurtia izatea. [...] Zoritxarrekoa gaizpidea dakarren gizona!”**

(Mt 18, 5-7).

\* Jesus ez ebilen beti samur eta eztsitu. *Gizakia*, batez ere umetxoak, okerbidera eroateak odola irakiten ipinten eutsen. Umeak, sortu ezkerro, bide ona ikasteko eskubidea dauka; sortu ezkerro, jaiotzeko daukanez. Ondo ez ezitea, bere aurka egindako okerra da; berbera izten da bizi guztirako oker. Eta orrelako okerbidea, sarritan, etxean bertan suertatu leiteke. Ez ala bai? Zer deritxazu?

\* **“Errotarria samatik lotuta itsas-ondarrera botatea merezidu dau.”** Berba garratzak, ezta? Izan ere, norbera galduaz gainera, bestea ere ondamendira-ko bidean ipini. Atan ere, umeak! Geiago oraindik: seme-alabak... Gorputz eder eta osasuntsua izan dagien, zenbat ardura! Lanpostu onurakor bat lortu dagien ere, zenbat alegin! Eta fede, oitura eta ekandu aldetik bai ezelako ardurarik? Eleizbidean gurasoak aurrelari? Zer deritxazu?

## URRUNEKO INTXAURRAK AMALAU, BERTARA JOANDA LAU



- Zaratea, zurrunbiloa, naaste-borrastea, eupada eta orroak... Lapikoa utsago eta zaratatsuago. Karkaxa asko eta arrautza gitxi. Baina gizona, berez, olakoen zalea dala dirudi. Amalautik laura amar dagoz. Beste amarrak zer? Amalaren bila joan, eta laukotxo bategaz etxera. Olakorik jazo jatzu inoiz? Eta zer sentitzen da orduan? Zer deritxazu?
- Jendea, erleak lez, tanbor-otsera batzen da. Arrigarriren bat ikusteko asmoz edo. Gainera, joanda gero, dana ondo aztertu ondoren, sarri entzuten da: "*Au baino ez da?*" Jokera bikoitza dakusgu gizartean: erdi-merdizko gauza bat saldu naita, zenbat apainkeriz orniduten dan eta zelango soinu-otsa baztarretan! Eta beste bat, esaera onegaz agertzen doguna: "*Gari ona kaxatik saltzen da*". Jokera bietatik zein da nabarmenago gaur egun? Zer deritxazu?


**"Limosna emoterakoan, ez ibili  
aurretik turuta joten,  
itxarazaleak sinagogetan eta  
kaleetan ibiltzen diranez,  
jendeak goratu dagiezan.  
Egia esan orrek jaso dabe  
euren saria"**

(Mt 6, 2).

- \* Jesusek ez dau onartzen itxurakeri ori; gauzarik onenak ere alperrik galtzen ditu; sagarrik onenak lez, arjota geratzen dira. Eta olan ez da inor asetzen: ez Jainkoa, ez gizona. Egin ere, gauzak ez dira egiten *ondo eta on* egitearren, norbera ikusiaz, norbera txalotzearren baino. Jesus Maisuaren eztena barruraino sartzen da, eta barruko gatxetik osatu nai gaitu. Gaur zer ikusten dozu? Gero eta obeto goaz arazo onetan gu kristauok? Zer deritxazu?
- \* *Turuta jo*, zenbat eratara jo leiteke turuta? Kontua zerau da: norberagana begira ipintea jendea. "**Jaso dabe euren saria.**" Txalo utsak baino ohea, ezta? Eta eurak ere ez sarri. Non eta noiz joten dau *turuta* edo dalako ori gaurko jendeak? Eta zeren atzetik dabil? Eta jenderik inguratzen dabe? Zer deritxazu?

56

## USTEAK USTE, ERDIAK USTEL

A black and white illustration of a scroll with text. The scroll is unrolled from the top right. At the bottom right of the scroll, there is a quill pen in an inkwell. The text on the scroll is in Basque.

*Gure ustea ustea da ta  
erdia beintzat ustela,  
zure egien argira, Jauna,  
zuzendu gure batela.  
"Argi baten antzera  
etorri naz lurrera",  
esan zenduan bezala.  
Zuri sinistuz eta jarraituz  
biziko gara bestela!*

- Gizonoi berezkoa jaku amets egitea. Jakina, ametsak onak eta txarrak izaten dira. Gugan sortzen jakuzan ametsak eta doguzan usteak bardinak dira sarritan. Zati aundi baten bai beintzat. Izan ere, "etorkizuna, kontakizuna" da; eta gaurkoaz ere naiko dogu, zelan amaituko dogun ez dakigu eta. Usteak onak diranean, gure barruko lapikotxoak beingoan egiten deusku gainezka; txarrak diranean, ostera, ez da ezelako egurrik gure lapikoa berotuko dauanik! Olangorik jazoten da bizitzan? Zer deritxazu?
- "Usteak, erdiak ustelak" ei dira. Alan eta guzti ere, ametsetan jarraitu bear. Amets eta ustebako pertsona leorra eta lurkoia da: begiz ikusi, eskuz ikutu edo aragiz atsegintzen dauana baino ez dau sinisten eta bilatzen. Eta orrelako gizakia baldarra da; orrelako txoriak ezin dau egazkada aundirik egin. Ametsetako eztegurrik gozoenak ez dau sabelik betetzen. Gazteak ala zaarrak, nortzuk egiten dabe amietsik geien? Zergaitik? Gerora begira, amiets edo uste pozgarririk ez daukan jubilatua zer? Zer deritxazu?


**“Guk, bai, uste genduan Berak  
askatuko ebalat Israel; baina  
badira iru egun ori jazo zala. [...] Bai burugogor eta motel zareela,  
profetek esandakoa sinisteko!  
Ez ete eban Mesiasek ori guztia  
jasan bear, bere aintzan  
sartzeko?”**

(Lk 24, 21.25-26).

\* Apostoluen usteak ere porrot egin eben, Jesus il ondoren. Euren usteak aundi eta zoragarriak ziran: Jesus langorik, ez beste inor, sekula ere ez! Beti nagusi, txalotua, errege eta indartsu, euren erriaren salbatzaile eta arerio danen aurka beti irabazle izango zalakoan. Baina kurutzean amaitu eban: baztartuta, lapur biren erdian, ezinean, madarikagarri lez. Uste eder biribilok eraginda, dana itzi eta jokatu eben, Jesusi jarraitzearren; orain usteak porrot egin ondoren, dana itzita barrero leengora biurtzen dira. Gaurko kristau askoren artean ere ez da ikusten antzekorik ezer? Zer deritxazu?

\* **“Bai burugogor eta motel zareela, profetak esandakoa sinisteko!”** Jesusek sarri aitatu eutseen, Berak gorriak jasan bearko ebazala, il egingo ebela, baina irugarren egunean biztu egingo zala. Alperrik, baina! *“Gizonen usteak, erdiak ustelak.”* Jaungoikoa bitarteko sartzen danean, orduan bai ez-ustekoak sortzen dirala! Mesias aundia izango zalako ustea; orra uste ebena baino aundiagoa non berbizten dan. Sekula inork azpiratu ez dauan arerioa, eriotzea, azpiratuta, bizirik euren artean. Egundo inork sekula olako usterik eta ametsetarik... Olan dala, sinismenak badauka zer ikusirik gure amets eta usteetan? Zer deritxazu?

## ZAARRA GANBELU, GAZTEA GAZTELU



*Ume, gazte ta nagusi,  
erregu baten Jesusi:  
Munduan zear goazen artean  
zure eskutik ez utzi;  
gero zeruan begi-betean  
al zaiguzala ikusi.*


- Zaarrak jakin daki; baina ez liburutik, geienbaten. Bizitzako bideetan *buruko, lepoko, eperdiko eta belarrondoko* asko artu ditu. Eta betiko marka eta ezaugarriak geratu jakoz, bai gorputzean eta bai biotzean. Jakituri onek balio aundia dauka... baina pauso barriak emoteko sasoian, otz eta motz. Lar bildur eta arduraz dabil, nekez erabagi eta baietza emoten dau. Gainera, bide luzeak ibilita dago; orain astiro dabil, badaezpadan ere... Zer geiago ezarriko zeunskio zaartzaroko egoerari? Zer on eta txar ikusten deitsazu? Zer deritxazu?
- Gaztea, ostera, zirt edo zart; errez berotzen da, beingoan asten da amets gozotan. Oraindino urratu bako azal lirain eta fina dauka aldean, zimur bako begitarte. Berak bizi ez dauan esperientzia ezin dau sinistu, batez ere garratza bada. Berea beti izango da ezbardina; jakina, zaarrena baino ohea. Eta zer egin? Neurri zeatzak ezarri? Dana txarrera bota? Zeure gaztaroan, bere orduko giroan, ez zinan izan zeu ere bardin? Zer egin gazte-zaarren arteko eten au osatzeko? Zer deritxazu?

**“Bazkalorduan bere morroia  
bialdu eutsen, deituai esatera:  
«Etorri zaitezte, gertu dago  
guztia eta.» Baina guztiak batera  
aiko maikoetan asi ziran”**  
(Lk 14, 17-18).

\* Jesus Gure Jaunak bere Erreinuko maaira deitzen deusku zaar-gazteoi, alkarregaz jatera, etxe bateko seme-alaba izatera. Alkarlanean, Aitaren Erreinuko bizi barrira. Au bai eztegu gozoa! Baina guztion izerdiz eta lanez irabazitakoa. Mundu barri eta obe bat egiteko, leenengo arazorik gogorrena auxe da: alkar ulertu, alkarri eskuak luzatu, alkarren premina sentidu. Ba al dago gaur au egiterik? Geuk zer egin? Zer deritxazu?

\* **“Guztiak batera aiko maikoetan asi ziran.”** Bakoitza bereari lotuta; beste inogaz ezer jakin nai ezta. Norbere bizitza landu eta zuzendu bearra ezin onartu. Zaarrak gaztea, goikoak beekoa, ezkerrekoak eskumakoa, beti inor errudun, atxaki... Maai baten ezin gogonez eta bakez jesarri, aurpegiz aurpegi. Beartsuak beti dagoz prestago bide barrietara joteko. Zergaitik ete? Gaur ere bai? Zer deritxazu?

## ZARATEAK EZ DAUKA GAUZA ONIK, GAUZA ONAK EZ DAUKA ZARATARIK





- “Urruneko lapikoa urrez, bertara joanda lurrez.” Edo urez! Zer ba? Zera, zaratea zenbat eta aundiagoa, lapikoa zein gizona, utsago eta zaratatsuago. Gaur egun, zenbat berba, propaganda, kalejira... Arrantza aundiago, eta arrazoi geiago, antza. Ala asto aundiagoa? Zarata barik bizi ezin. Baina, bestalde, gizon langile eta zintzoak: zarata gitxi eta egitada asko. Txatxala-patxala askok, lore asko eta frutu gitxi. Zarata barik bizi ezin onek, zer dinotsu? Zer deritxazu?
- *Zarateak ez dauka gauza onik* Ontzat artzen dozu au? Gogora ekarri zeinkez kasu bi? *Gauza onak ez dauka zaratarik.* Ze gauza on jatortzuz gogora, isilik eta maitasunez egiten diranak, edo orrela egin bearko litzatekezanak? Isiltasunaren bildur ete gara, ba? Ala barrua utsik dagoanaren ezaugarri? Zer deritxazu?


**“On egin dagizunean, ez atera turuta-otsik; ez dagiala zure ezkerak jakin zure eskumeak egiten dauana”**

(Mt 6, 3).

- \* **“On egin dagizunean, ez atera turuta-otsik.”** Eskupekoa dala, alkarlaguntza dala, edozetariko mesede bat egitea dala... Olako asko egiten dauanak astirik bai gero, zarata asko aterateko? Jesus Bera beti agertzen jaku jendu umilaren erdian. On egitea da bere ardura guztia. Gaixo eta makalik dagozanak, geienetan, bakarrean artzen ditu. **“Ez gero inori esan”**, aginduten deutse osatzen dabezanei. Ibai aundiak ur asko eta zarata gitxi; errekastoak beti txantxarin... Zeuk zer ikusten dozu zeure inguruan? Zer deritxazu?
- \* **“Ez dagiala zure ezkerak jakin zure eskumeak egiten dauana.”** Aspaldian aztuta daukagun dotrinea da au: *“Guk au eta guk ori”, “Guk erria eta erriak gu”, “Guk au eta au eskeintzen dogu, egin dogu, egingo dogu”*... Luzatu nai dozun beste errezkadea. Baina Jesusek danen gainetik goraltzen dau arako *“txanpon txikiena”* isilean botaten dauan alarguntxo (Mk 12,43). Beste danak baino gorago jarten dau; eta itxurazale ziranen jokabidea baztartzten dau. *“Ezkerrek ez dagiala jakin eskumeak zer egiten dauan.”* Zer deritxazu?

59

## ZOROEN EZTIA, GOZOA GUZTIA



- *Zorooa*: pitxia naiz pekorotza berdin deutsona. Edo gauzen edertasuna batekoz beste ikusten dauana, eta bestetara ikusten dauzana *lelotzat* botaten dauana. Normalean, neurri motxeko pertsonak izan oi dira geien “*jakiten*” dabenak.

*Eztia*: beti gozora joten dugu guztiok. Gauza danak dira onak, danak geuretzat eginak dira eta. Baina neurritz eta zentzuz erabili bear. Gauza bakoitzak dauka bere *eztia*; erlearen antzera xurruptzen ikasi bear dogu. Ezti utsak onik bai? Zer deritxazu?

- *Gozoa guztia*. Dana osorik eta dagoen moduan iruntsi. Abereak ere aukeratzen dakie bakoitzak beretzat ongari jakona. Eta guk gizonok, uts egin bear ete dogu orretan ere! *Gozoaren* gozoz ez al dira asko gauzeztaduten? *Gozoaren gatxa* okerreana izan leiteke. Ze gatx ekarri leike gorputzerako *gozoaren gozoak*? Eta pertonearentzat? Zer deritxazu?

**“Ez bota pitxiak  
txarrien ankpera”**

(Mt 7, 6).

\* Ez horixe, zoratuta ez bagagoz, beintzat!  
Inkestak egitea modan sartu jaku:

— *Jaungoikorik bai ala ez?*

— Puff, Jaungoikoa...

— *Jaiotza-aurreko umegaltzeari bai ala ez?*

— Beno, beno, inork dudarik ba al dauka horretan?

— *Ezkontz-aurreko kanpoko artuemonak zilegi dira, bai ala ez?*

— Oraindik ere orretan zagoz?

*Edozein lekutan edozeini edozer itaun egiteko oitura sartu. Eta santu eta zintzo batek baino arrazoi geiago dabe mila bestelakoak, itaunduten diranak fedearazoak izanarren. Ez dozu inoiz astoa ikusi ortuan edo lore artean ijutika? Ango txikantzea! Asko deutso ardura loretegi naiz otatza izan! Ez dozu gaur olakorik ikusten edo entzuten gure artean? Eta inkestetan zertara dagozan geienak, axe egia eta zuzena? Zer deritxazu?*

\* ***“Ez bota pitxiak txarrien ankapera.”***

Jesus Gure Jauna ez ebilen orduko eritzi eta oituretara makurtuta, naizta lauren battegaz gelditu; *naiago laurenakaz jokatu*, Aitaren aurrean zuzen eta on ikusten ebanaren alde. Geienak ez dagoz inoiz ere on egitearen alde, parkatzearen alde, bideak garbi eroatearren norbere burua ukatzearen alde... Jaungoikoa eta bere bideak ezin doguz munduko inkesten arabera erabili. Eta guk zelan jokatu bear dogu orduan? Zer deritxazu?

## ZOZOAK BELEARI: “IPURBALTZ”



- Ez zera! Alakoa dauka, euki ere! Zozoak ondo ikusi eutsan bein baino geiagotan. Gainera, zozo danak ziran eritzi bardinekoak... Eta bela danak: *"Ipurbaltz"*. Esan eta esan, eta alantxe izan. Nork eta zozoak esan beleari ipurbaltz? Ortxe jagok, ba, untzea: inoren baltzaz norbere baltza zurituko dalakoan. Gainera, danak esaten dabena izan ezkerro, zuria ere baltzitu. Zer deritxazu?
- Belea, orixe bai egazti zelatari eta begi zorrotza, beste inor bada! Eta berak ere laster ikusi eutson zozoari bere teilapea. Eta... ikusteko ere alako baltzik! Baltza baino ere baltzago... Eta krisk eta krask beleak ere ekin eutson: *"Zozo ipurbaltz"*. Eta orra or: *esanago eta baltzago*. Betikoa: begiak argi inorenak ikusteko. Zer, zozo-belen arteko gauzarik edo antzekorik bai gure artean? Zer deritxazu?

**"Atera egizu leenen abea zure begitik eta orduantxe ikusiko dozu samarra zure anaiaren begitik aterateko"** (Mt 7, 5).

- \* Jesusek baekian gure barri, ondotox jakin ere. Begi zorrotzak inoren baltzak ikusteko: zuk nireak eta nik zureak. Eta gitxi gorabeera, *guztiok bardin antze-koak*. Bota ere ederra botaten dau: "Zeure begiko *abea*... eta urkoaren begiko *"samarra"*. Norbere bizitza ondo aztertu ezkerro, abe asko agertzen dira; orrek ondo garbitzen alegindu ezkerro, inoren samarrak txikiago ikusten dira. Jesusek ez dau larregizkorik esaten? Zer deritxazu?
- \* Jesus bai *sendagile bizkorra*. Leenengo norbere begiko abea atera: norbere burua zuzendu, aztertu. Ori bai gatxa! Orduan bai kontuz ibilten dala bat inoren begiko samarrakaz. Gure utsegiteak beti *bizkarreran*, inorenak beti *paparrean*. Zergaitik ez kontrara? Santuak dira —euren artean, santuena: JESUS— errukitsuenak urkoagaz. Zergaitik ete da? Zer deritxazu?

## AURKIBIDEA

Zer deritxazu? .....	7
1. Adiskideak alboan, baina ortzak aoan .....	11
2. Artu edo itzi, kunplimentu gitxi .....	14
3. Artzeko pronto, emoteko tonto .....	17
4. Asiak egina dirudi, eginak urre gorri .....	20
5. Aukeraren maukera, azkenean okerra .....	23
6. Aundi txikiak baino, txiki aundiak naiago... ..	26
7. Auzoak iletetan eta gu opiletan .....	29
8. Azurak badau koipea, baina mamina ohea .....	32
9. Badalako ez da, ez dalakoa bada .....	35
10. Bai, baina... mila maina .....	38
11. Bakoitzari berea da zuzenbidea .....	41
12. Bancuka eta balitz, alkarren atzetik dabiltz... ..	44
13. Begiak noraino, biotza araino .....	47
14. Berbetan labur, eginetan samur .....	50
15. Beti egiten dauanak nai dauana, sarri egingo dau bear ez dauana .....	53
16. Bista ona eta alkar ikusi ezin .....	56
17. Bost xentimoko pupua eta amar xentimoko trapua .....	59
18. Burdin otzean jo eta jo, alperrik abil, kokolo .....	62
19. Bururik ez eta txapela nai .....	66
20. Dagonean dagontxoa, ai ene gizontxoa .....	70
21. Dirua morroi ona, baina ugazaba txarra .....	73
22. Egizu on, ez dakizula non .....	76
23. Egon adi lo eta jango dok me .....	79
24. Eguzkia nora, zapiak ara .....	82
25. Errenka bide zuzenetik naiago, okerretik lau ankan baino .....	85
26. Etorrizuna, kontakizuna .....	88
27. Ez da bizi bear jateko, jan egin bear da bizitzeko .....	91
28. Ez danean ez da, al danean festa .....	94
29. Ez daukazu dudarik? Ez dakizu asko, duda barik .....	97

30. Ezina, ekinaz egina .....	100
31. Gixona gixon, katua mixon .....	103
32. Gizonak ekin, Jaungoikoak egin .....	106
33. Gogozko lekuan aldaparik ez .....	110
34. Gure pozak pozura, munduko gauzen modura .....	113
35. I aundi eta ni aundi, nork esango gure astoari: "Arri" .....	116
36. Izenak aundi, izanak txiki .....	119
37. Jainkoa, bat eta Bera naikoa .....	123
38. Kalteak idatzi autsetan, mesedeak arrietan ..	126
39. Kurutzbidea, bidekurutzea .....	129
40. Lotsabakoentzat mundua, irabazten dabenentzat zerua .....	132
41. Maria guria goruetan, bear ez dan orduetan ..	135
42. Mendiak ez dau mendia bear, baina gizonak bai gizona .....	138
43. Nagia beti lantsu .....	141
44. Nirea neure, zurea geure .....	145
45. Nun dan nire gogoa, an da nire zangoa .....	148
46. Obe da gitxi asko, asko gitxi baino .....	151
47. Ogi gogorrari, agin zorrotza .....	154
48. On eginaren pagua, ate ostean palua .....	157
49. Osasuna eta ondasunak, galdu ezker ezagunak .....	160
50. Patxi oilasko, okela gitxi eta salda asko .....	164
51. Txapel batekin buru bi estaldu ezin .....	167
52. Txapela buruan eta ibili munduan .....	170
53. Txarto esanak parkatu, ate ostean sakatu .....	173
54. Umearen zentzuna, etxean entzuna .....	176
55. Urruneko intxaurreak amalau, bertara joanda lau .....	179
56. Usteak uste, erdiak ustel .....	182
57. Zaarra ganbelu, gaztea gaztelu .....	186
58. Zarateak ez dauka gauza onik, gauza onak ez dauka zaratarik .....	189
59. Zoroen ezitia, gozoa guztia .....	192
60. Zozoak beleari: "Ipurbaltz" .....	195